80
Ekaina 2026 / Junio 2026

# BERRIOPLANO informa
# BERRIOBEITIko ahotsa

Boletín de información municipal del Ayuntamiento de Berrioplano

Berriobeitiko udalaren informazio aldizkaria

Síguenos en / Hemen gaitzuzu:

http://www.berrioplano.es/

- Aizoáin Aitzoain
- Añezkar
- Artica Artika
- Ballariain
- Berrioplano Berriobeiti
- Berriosuso Berriogoiti
- Elcarte Elkarte
- Larragueta Larrageta
- Loza Lotza
- Oteiza Oteitza









## Euskara festara jalgi zen

## El euskera salió de fiesta

**Colabora / Laguntzailea:**
Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

**Tirada / Ale kopurua:**
3.500
**D.L. / L.G:**
NA-1432-2006.
Difusión gratuita
Doako banaketa

**Fotografía / Argazkia:**
Jon Urriza
**Realiza / Errealizatzailea:**
Heda Comunicación
**Traducción / Itzulpena:**
Heda Comunicación

**Consejo de redacción/ Erredakzio Kontseilua:**
Félix Remírez, Raúl Bator, Luis González, Francismo Esquíroz, Víctor Gil, Fco. Javier Vallez, Unai Calvo

**Edita / Argitaratzailea:**
Ayuntamiento de Berrioplano
Berriobeitiko Udala

# AGENDA

MISTOA
Papera | Basogintza arduratsua babesten
Papel | Apoyando la silvicultura responsable
FSC® C021816
www.fsc.org

## VERANO

**19 de junio, sábado**
PASEOS SALUDABLES
**Salida:** Casa de Cultura (Artica)

**19-20 de junio**
FIESTAS DE OTEIZA

**20 de junio, sábado**
CONCIERTO.
"Xuxurlaka" Aché Pa Ti.
**Hora:** 19:00. **Lugar:** Casa de Cultura María de Maeztu (Artica) **Entrada:** 8 € anticipada / 9 € taquilla

**3 de julio, viernes**
PASEOS SALUDABLES
**Hora:** 10:00 **Salida:** Consultorio Médico de Berrioplano

**19 de julio, domingo**
VUELTA CICLISTA A PAMPLONA (FÉMINAS)
**Hora:** 11:00 **Lugar:** frente al frontón de Berrioplano **Organiza:** Club Ermitagaña **Colabora:** Ayuntamiento de Berrioplano

**26 de julio, domingo**
TEATRO EN AIZOÁIN
"Sinfónica Afónika". Zirika Zirkus **Público:** familiar **Hora:** 19:30 **Entrada:** gratuita

**31 de julio - 02 de agosto**
FIESTAS DE LARRAGUETA

**31 de julio, viernes**
TEATRO EN LARRAGUETA
"La llegada". Koilara Teatro **Público:** Todos los públicos **Hora:** 18:00 **Entrada:** gratuita

**15 de agosto, sábado**
CINE AL AIRE LIBRE EN OTEIZA
"Robot salvaje" (animación). **Público:** a partir de 7 años **Hora:** 22:00 **Entrada:** gratuita

**22 de agosto, sábado**
CINE AL AIRE LIBRE EN NUEVO ARTICA
"Se abre la veda" **Público:** a partir de 7 años **Hora:** 22:00 **Entrada:** gratuita

**26 de agosto, miércoles**
FUTBOL PLAZA 3X3 FUNDACION OSASUNA
**Hora:** 16:30 **Lugar:** Plaza central de Artica **Inscripciones:** una hora antes del inicio **Organiza:** Fundación Osasuna y Ayuntamiento de Berrioplano

**28-30 de agosto**
FIESTAS DE BERRIOSUSO

**28 de agosto, viernes**
TEATRO EN BERRIOSUSO
"La última y nos vamos" Trapu Zaharra **Público:** todos los públicos **Hora:** 18:30 **Entrada:** gratuita

**03-08 de septiembre**
PREINSCRIPCIONES CURSOS MUNICIPALES
**Cómo:** llamando al 948-012 012, de 8:00 a 18:00 **Pago de matrícula para personas admitidas:** 10 y 11 de septiembre

**4 de septiembre, viernes**
PASEOS SALUDABLES
**Hora:** 10:00 **Salida:** Consultorio Médico de Berrioplano

**04-06 de septiembre**
FIESTAS DE AÑEZKAR Y ELCARTE

**4 de septiembre, viernes**
TEATRO EN AÑEZKAR
"El carro de la alegría". Producciones Kinser **Público:** todos los públicos **Hora:** 18:00 **Entrada:** gratuita

**5 de septiembre, sábado**
III PRUEBA DE PATINAJE
**Lugar:** Plaza central de Nuevo Artica **Hora:** 10:30 (infantil), 11:30 (absoluta) **Organiza:** Club de Patinaje Articapatin **Colaboran:** Concejo de Artica y Ayuntamiento de Berrioplano

**6 de septiembre, domingo**
IX CARRERA POPULAR DE ARTICA
**Lugar:** Plaza central de Nuevo Artica **Hora:** 10:30 (infantil), 11:30 (absoluta) **Organiza:** CD Korrikalaris de Artica **Colaboran:** Concejo de Artica y Ayuntamiento de Berrioplano

**11-13 de septiembre**
FIESTAS DE LOZA Y ARTICA

**11 de septiembre, viernes**
MAGIA EN LOZA
"Magia para reír". Marcos Ortega **Público:** familiar **Hora:** 18:30 **Entrada:** gratuita

**21-25 de septiembre**
VENTA DE TICKETS PARA LA COMIDA DEL DÍA DE LA CENDEA

**3 de octubre, sábado**
DÍA DE LA CENDEA EN BERRIOSUSO

## UDA

**Ekainak 19, larunbata**
IBILALDI OSASUNTSUAK
**Irteera:** Kultur Etxea (Artika)

**Ekainak 19-20**
OTEITZAKO JAIAK

**Ekainak 20, larunbata**
KONTZERTUA.
"Xuxurlaka" Aché Pa Ti **Ordua:** 19:00 **Non:** Artikako María de Maeztu Kultur Etxea **Sarrera:** 8 € aurrez / 9 € leihatila

**Uztailak 3, ostirala**
IBILALDI OSASUNTSUAK
**Ordua:** 10:00 **Irteera:** Berriobeitiko Osasun Kontsultategia

**Uztailak 19, igandea**
IRUÑEKO TXIRRINDULARITZA ITZULIA (EMAKUMEAK)
**Ordua:** 11:00 **Non:** Berriobeitiko pilotalekuaren parean **Antolatzailea:** Club Ermitagaña **Laguntzailea:** Berriobeitiko Udala

**Uztailak 26, igandea**
ANTZERKIA AITZOAINEN
"Sinfónica Afónika" Zirika Zirkus **Publikoa:** familiarra **Ordua:** 19:30 **Sarrera:** doan

**Uztailak 31 – Abuztuak 02**
LARRAGETAKO JAIAK

**Uztailak 31, ostirala**
ANTZERKIA LARRAGETAN
"La llegada" Koilara Teatro **Publikoa:** jende guztiarentzat **Ordua:** 18:00 **Sarrera:** doan

**Abuztuak 15, larunbata**
ZINEMA AIRE ZABALEAN OTEITZAN
"Robot salvaje" (animazioa) **Publikoa:** 7 urtetik gora **Ordua:** 22:00 **Sarrera:** doan

**Abuztuak 22, larunbata**
ZINEMA AIRE ZABALEAN ARTIKABERRIN
"Se abre la veda" **Publikoa:** 7 urtetik gora **Ordua:** 22:00 **Sarrera:** doan

**Abuztuak 26, asteazkena**
PLAZA FUTBOLA 3X3 OSASUNA FUNDAZIOA
**Ordua:**16:30 **Non:** Artikako plaza Nagusia **Izen-ematea:** hasi baino ordubete lehenago **Antolatzailea:** Osasuna Fundazioa eta Berriobeitiko Udala

**Abuztuak 28-30**
BERRIOGOITIKO JAIAK

**Abuztuak 28, ostirala**
ANTZERKIA BERRIOGOITIN
"La última y nos vamos" Trapu Zaharra **Publikoa:** jende guztiarentzat **Ordua:** 18:30 **Sarrera:** doan

**Irailak 03-08**
UDAL IKASTAROAK, AURREINSKRIPZIOAK
**Nola:** 948-012 012ra deituz, 8:00etatik 18:00etara **Onartuendako matrikula ordainketa:** irailak 10 eta 11

**Irailak 4, ostirala**
IBILALDI OSASUNTSUAK
**Ordua:** 10:00 **Irteera:** Berriobeitiko Osasun Kontsultategia

**Irailak 04-06**
AÑEZKARKO ETA ELKARTEKO JAIAK

**Irailak 4, ostirala**
ANTZERKIA AÑEZKARREN
"El carro de la alegría" Producciones Kinser **Publikoa:** jende guztiarentzat **Ordua:** 18:00 **Sarrera:** doan

**Irailak 5, larunbata**
III. IRRISTAKETA PROBA
**Non:** Artikaberriko plaza Nagusia **Ordua:** 10:30 (haurrak), 11:30 (absolutua) **Antolatzailea:** Patinaje Articapatin kluba **Laguntzaileak:** Artikako Kontzejua eta Berriobeitiko Udala

**Irailak 6, igandea**
ARTIKAKO IX. HERRI LASTERKETA
**Non:** Artikaberriko plaza Nagusia **Ordua:** 10:30 (haurrak), 11:30 (absolutua) **Antolatzailea:** Artikako CD Korrikalaris **Laguntzaileak:** Artikako Kontzejua eta Berriobeitiko Udala

**Irailak 11-13**
LOTZAKO ETA ARTIKAKO JAIAK

**Irailak 11, ostirala**
MAGIA LOTZAN
"Magia para reír" Marcos Ortega **Publikoa:** familiarra **Ordua:** 18:30 **Sarrera:** doan

**Irailak 21-25**
TXARTELAK SALGAI ZENDEAREN EGUNEKO BAZKARIRAKO

**Urriak 3, larunbata**
ZENDEAREN EGUNA BERRIOGOITIN

## ESCUELA DE MÚSICA ORREAGA / ORREAGA MUSIKA ESKOLA



### Fin de curso con mucha actividad

El 22 de mayo, la banda, el ensemble de canto y el combo de seniors se desplazó a Añezkar para ofrecer una actuación, muy aplaudida por el público; la Casa de Cultura María de Maeztu acogió el 25 de mayo el concierto de combos, la banda de iniciación y la banda txiki; y el 29 fue el concierto de adultos, un grupo cada vez más numeroso. Las actuaciones en la Casa de Cultura se completaron con los conciertos de fin de curso de txikis y mayores. Estos últimos llevaron a escena una temática de festival de verano, tipo rave, muy divertida.

En junio, la escuela volvió a salir a la calle. El 1 de junio, dentro de la Semana del Euskera, el ensemble de voces con coro ofreció un variado repertorio en euskera en la plaza de Nuevo Artica (en la imagen); y el 11 las gaitas fueron las protagonistas del concierto ofrecido en la plaza de la Casa de Cultura.

La matriculación interna ha sido especialmente alta este año. Ha habido más variedad de instrumentos que nunca y los de viento han tenido tirón y empiezan a tener fuerza.

### Jardueraz betetako ikasturte bukaera

Maiatzaren 22an, bandak, ensembleak eta combo seniorrak Añezkarren jo zuten, eta emanaldi txalotua izan zen benetan. María de Maeztu Kultur Etxean, bestalde, comboen, hastapen bandaren eta banda txikiaren kontzertua eman zen, maiatzaren 25ean. Maiatzaren 29an, berriz, gero eta kide gehiago dituen helduen kontzertua. Kultur Etxean, gainera, haurren eta helduen ikasturte akaberako kontzertuak eman ziren. Azken horiek udako jaialdiari dagozkion gaiak eraman zituzten, rave moldekoak, oso dibertigarriak.

Ekainean, eskola berriz ere kalera atera zen udako etorrera ospatzeko. Horrela, ekainaren 1ean, Euskararen Astearen barnean, ahots ensembleak eta abesbatzak euskal kantu sorta oparoa eman zuten Artikaberriko plazan (irudian); eta hilaren 11n, gaitak aritu ziren Kultur Etxeko plazan emaniko kontzertuan.

Barne matrikulazioa, aurten, bereziki handia izan da. Inoiz baino instrumentu mota gehiago aukeratu dira. Gainera, haize-instrumentuek tiradizoa izan dute eta hasi dira indarra hartzen.

# EL AYUNTAMIENTO INFORMA
# UDALA BERRIEMAILE

## Canal de WhatsApp ciudadano

Date de alta en el canal de WhatsApp municipal y recibirás información sobre las próximas citas culturales, deportivas, de juventud y actividades programadas por el área de Euskera; avisos del Ayuntamiento; citas para los procesos participativos; plazos de inscripción abiertos; convocatorias de empleo; las fechas del calendario contributivo; y otras novedades que se vayan produciendo en el día a día del Ayuntamiento.La confidencialidad de todas las personas que se inscriban está garantizada.

**Date de alta en este ENLACE** https://whatsapp.com/channel/0029VayDUOm2975EQ22aru1L

**Date de alta en el QR**







## Herritarrendako WhatsApp kanala

Har ezazu alta udalaren WhatsApp kanalean eta informazioa jasoko duzu kulturan, kirolean eta gazte arloan diren hitzorduez, Euskara Zerbitzuak antolatutako jarduerez; udal oharrez: parte-hartze prozesuetarako hitzorduez; irekita dauden izen-emate epeez; enplegu deialdiez; zerga egutegiko datez; eta udalaren inguruan egunez egun gertatzen diren beste albiste batzuez ere bai. Bermatua dago izena ematen duten guztien konfidentzialtasuna.

**Hartu alta ESTEKA honetan** https://whatsapp.com/channel/0029VayDUOm2975EQ22aru1L

**Hartu alta QR honetan**

### NOVEDADES BIBLIOTECA
### LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK




RAZQUIN, Rubén
**Hojas de roble**
Bohodón, 2023

LARRETXEA, Hasier
**Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da**
Alberdania, 2024

BRAKO OZKOIDI, Oscar
**Pamplona : el patrimonio invisible**
Pamiela, 2024

DARRAGH, Síle
**John Lennon ha muerto: Protestas, huelgas de hambre y resistencia**
Txalaparta, 2024

GALLEGO GARCÍA, Laura
**Goleadoras en la liga**
Destino, 2019

MUGURUZA, Jabier
**Julen eta Helene**
Denonartean, 2025

BADESCU, Ramona
**El deseo de Conejo**
Edelvives, 2018

BARNETT, Mac / HARRIS, Shawn
**El primer gato en el espacio comió pizza**
Historias Gráficas 2023

# ZERBITZUAK
# SERVICIOS

## Udalak hiru kanal ditu osoko bilkuren berri izateko

Oro har, bilkura publikoak dira; beraz, zabalik daude herritarrendako. Orain dela urte batzuk arte, **saioetara zuzenean** joan beharra zegoen –edukiera bete arte– osoko bilkuren berri izateko. Teknologia berrien etorrerarekin, ordea, kanal berri bat jarri da jendearen eskura osoko bilkuretan klik bakar baten bidez sartzeko, udaletxera joan behar izan gabe. Aski da **www.berrioplano.es** udal webean sartu eta "osoko bilkurak" esteka sakatzea; bertan, akta guztiak jasoak daude eta osoko bilkura guztiak bideoz grabatuak gelditzen dira.

Eta hirugarren bide bat ere badago, udalbatzak osoko bilkuran hartzen dituen erabakien berri jakiteko, **UIA** aldizkariaren bidez, hain zuzen ere. Udal aldizkariak, izan ere, onesten diren erabakien laburpena dakar, bai eta kasuan kasuko osoko bilkuran sartzeko QR bat ere.

Horrenbestez, Udalak hiru kanal ditu osoko bilkuretan esan eta erabakitzen direnak eskuratzeko: bertara joanez, webaren bidez eta UIA-Udalaren Informazio Aldizkariaren bitartez.






## Acceso a la información de Plenos desde 3 canales municipales

Con carácter general, son sesiones públicas y, por tanto, abiertas a la población. Hasta hace unos años, la forma habitual de seguir los plenos municipales era asistir **presencialmente** a las sesiones hasta completar aforo. Sin embargo, con la llegada de las nuevas tecnologías, se ha introducido un nuevo canal que permite a la ciudadanía acceder a los plenos en un click, sin necesidad de desplazarse hasta el Ayuntamiento. Basta con entrar en la web municipal **www.berrioplano.es**, desplegar el apartado "Ayuntamiento" y pinchar el enlace "Plenos", donde se recogen todas las actas y quedan grabadas en video todas las sesiones plenarias.

Otra forma de conocer las principales decisiones adoptadas por la Corporación municipal en Pleno es hacerlo a través del **BIM**. La revista municipal ofrece un resumen de los acuerdos aprobados y un QR que enlaza con el pleno correspondiente.

Por tanto, el Ayuntamiento ofrece tres canales de acceso a los Plenos: presencialmente, desde la web y a través del BIM (Boletín de información Municipal).

# RESUMEN DE PLENOS

Las actas de los plenos y las grabaciones de las sesiones están disponibles en **www.berrioplano.es**

## PLENO ORDINARIO (18-03-2026)

**Acuerdos en relación a la sustitución de concejales y concejalas en comisiones informativas.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la corporación municipal excepto José Mª Irisarri (AAB), el Pleno aprobó por 10 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, PP, UPN y AAB y 2 abstenciones de VPA y PSN acordar que, en casos de ausencia de un concejal miembro de una Comisión informativa o Junta de Portavoces, el concejal ausente podrá ser sustituido por otro concejal miembro de su mismo grupo político. Este cambio será efectivo con la simple presencia del otro concejal en la comisión o junta indicada.

**Moción del PP relativa al tráfico de Etxebakar.** El PP presentó una moción solicitando que se estudien de manera prioritaria soluciones viarias ante el aumento de tráfico rodado previsto en el entorno de Etxebakar y en el municipio. EH Bildu se mostró partidario de sacar adelante la moción, pero solicitó la modificación de los puntos 2 y 3. Finalmente, se aceptaron los cambios propuestos por EH Bildu y se aprobó la moción por 8 votos a favor de EH Bildu, 2 de PP, 2 de UPN, 1 de AAB y 4 abstenciones de Plazaola, VPA y PSN, para instar a los Ayuntamientos de Berrioplano y de Berriozar y al Gobierno de Navarra a que, en el marco del trabajo ya establecido, contemplen medidas y las lleven a cabo ante el desarrollo y ocupación residencial de Etxebakar; instar a estas tres instituciones a que aporten soluciones viarias que garanticen la seguridad vial de los accesos a Etxebakar, Berriozar y Nuevo Artica, así como en la primera rotonda; e instar al Gobierno de Navarra a que adopte las medidas técnicas y presupuestarias necesarias para implementar las soluciones que se consideren oportunas con la mayor celeridad posible.

**Moción de PSN sobre el servicio público de alquiler de bicicletas.** Tras la lectura de la moción de PSN, UPN y EH Bildu presentaron sendas enmiendas. La de UPN no fue admitida y la de EH Bildu sí. Sometida a votación la moción para manifestar su voluntad de que el servicio público de alquiler de bicicletas pase a prestarse mediante gestión mancomunada a través de la MCP; para instar a la MCP a liderar el proceso de comarcalización y elaborar un proyecto técnico para la implantación del sistema público de bicicletas eléctricas en todas las localidades de la comarca de Pamplona; para continuar con el proceso abierto entre el Ayuntamiento, la MCP y el resto de ayuntamientos de la comarca para la implantación progresiva del servicio de todos los municipios adheridos; y para evitar la aprobación de una nueva concesión municipal de larga duración que dificulte o retrase la implantación del modelo metropolitano, fue aprobada por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN, 4 en contra de PP y UPN y 1 abstención de AAB.

## PLENO ORDINARIO (07-04-2026)

**Acuerdos a adoptar en relación al acuerdo adoptado por el pleno del 28 de junio de 2023 relativo al voto ponderado.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la corporación municipal excepto los ediles José Mª Irisarri (AAB), Unai Calvo y Luis González (Plazaola), el Pleno aprobó por 5 votos a favor de EH Bildu, Plazaola y VPA y 5 abstenciones de PP, UPN y AAB revocar íntegramente el acuerdo plenario del 28 de junio de 2023 por el que se establece que las votaciones en las comisiones informativas se realicen mediante voto ponderado (el voto ponderado en las comisiones es ilegal porque es representativo pero no proporcional); y para que, desde la entrada en vigor de este acuerdo, las comisiones informativas adopten sus dictámenes por mayoría simple y, en caso de empate, se aplicará el voto de calidad del presidente; y se hará constar en acta el sentido del voto y, en su caso, votos particulares, en los términos del régimen ordinario de funcionamiento de estos órganos.

## PLENO ORDINARIO (05-05-2026)

**Acuerdos a adoptar en relación a la ordenanza fiscal reguladora de bonificaciones en el impuesto de la contribución territorial.** En una sesión plenaria a la que asistió

## DEPORTE EN ESPACIO PÚBLICO /

# El teqball llega a Nuevo Artica

El Ayuntamiento ha instalado una mesa de ping pong y una de teqball (futmesaen la zona deportiva de Nuevo Artica, junto al parque de calistenia. El teqball les una modalidad deportiva en alza nacida en Hungría que combina el fútbol y el tenis de mesa. Se juega con un balón de fútbol en una mesa curva y los partidos pueden ser individuales y de dobles. El mejor de 3 sets gana y cada set se disputa hasta llegar a 12 puntos. Los jugadores pueden dar 3 toques a la pelota antes de devolverla y pueden golpearla con cualquier parte del cuerpo excepto con las manos o los brazos. Puedes informarte de todas las normas y características de este deporte en la web de la Federación internacional de Teqball (fiteq.org). Si quieres ver un partido, escanea el QR.





## KIROLA ESPAZIO PUBLIKOAN

# Teqball Artikaberrira iritsi da

Udalak bi mahai jarri ditu ping pong eta teqball kiroletan aritzeko, Artikaberriko kirol eremuan, kalistenia parkearen ondoan. Teqball edo futmahaia izeneko kirola zabaltzen ari da, futbola eta mahai-tenisa uztartuta. Hungarian sortu zen. Futbol baloi batekin jokatzen da mahai kurbo batean, eta partiduak banakakoak eta binakakoak izan daitezke. 3 set arteko onenak irabazten du eta set bakoitza 12 puntukoa da. Jokalariek 3 aldiz ukitu dezakete pilota, itzuli baino lehen, eta edozein gorputz atalekin jo, eskuekin eta besoekin izan ezik. Nazioarteko Teqball Federazioaren webean (fiteq.org) dituzu eskura kirolaren arau eta ezaugarri guztiak. Partidu bat ikusi nahi baduzu, eskaneatu QRa.

¿CONOCES EL **TEQBALL** / BADAKIZU ZER DEN **TEQBALA?**

Servicio de Atención Ciudadana
**Ayuntamiento:** 9:00 - 14:00 / 948 30 31 29 / de lunes a viernes.
**Artigune II:** Leonor de Aquitania, 26 (Artica). 9:00-14:00, de lunes a viernes

toda la corporación municipal excepto José Mª Irisarri (AAB), el Pleno aprobó por unanimidad la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de bonificaciones en el impuesto de la contribución territorial del Ayuntamiento de Berrioplano para garantizar una mayor equidad en la carga tributaria, adecuando el esfuerzo fiscal a la capacidad económica real de las unidades familiares y contribuyendo a la cohesión social (reforzando la protección de los colectivos más vulnerables), y, al mismo tiempo, incorporar bonificaciones para fomentar la transición energética, incentivar el autoconsumo y contribuir a la sostenibilidad ambiental.

**Acuerdos a adoptar en relación a la modificación de la tarifa del servicio de transporte a demanda.** La Corporación municipal aprobó por 8 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, AAB, VPA y PSN y 4 abstenciones de PP y UPN la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del servicio de transporte a demanda.

**Acuerdos a adoptar en relación a la modificación de la ordenanza municipal reguladora de los espacios deportivos y frontones.** Punto aprobado por unanimidad.

**Acuerdos a adoptar en relación a la modificación de la ordenanza reguladora de las instalaciones deportivas municipales de Artica y Berrioplano.** Punto aprobado por unanimidad.

### PLENO EXTRAORDINARIO (15-05-2026)

**Acuerdos a adoptar en relación al contrato de obras del nuevo edificio destinado a biblioteca municipal.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la corporación municipal excepto José Mª Irisarri (AAB), el Pleno aprobó por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN y 5 en contra de PP, UPN y AAB aprobar el expediente de contratación anticipada, mediante procedimiento abierto, del contrato de construcción del nuevo edificio destinado a Biblioteca Pública; aprobar el proyecto de obras para la ejecución de las obras de construcción del nuevo edificio; aprobar los pliegos reguladores de la contratación mediante procedimiento abierto; aprobar el gasto de 5.044.628,70 euros por el total de la obra, IVA incluido, que se ejecutará en dos anualidades, 2026 y 2027; y proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto.

### PLENO ORDINARIO (02-06-2026)

**Modificación presupuestaria de créditos generados por ingresos.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal excepto José María Irisarri (AAB), el Pleno votó por puntos las dos modificaciones presupuestarias. La primera, para generar un crédito de 268.660 euros para acometer derribos de casas que están en ruinas y cuyos propietarios no pueden hacerse cargo, fue aprobada por unanimidad. La segunda, relativa a modificar la partida destinada a las obras de la casa consistorial y ampliar su cuantía económica a 120.213,35 euros, importe que será sufragado por el Gobierno de Navarra dentro del Plan de Inversión Local 2026-2028, fue aprobada 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, PSN y VPA, 4 en contra de UPN y PP y 1 abstención de AAB.

**Acuerdos en relación a las subvenciones del 0,8%.** La Corporación municipal aprobó por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, PSN y VPA y 5 en contra de UPN, PP y AAB participar en el Fondo Local Navarro de Cooperación al Desarrollo promovido por la Federación Navarra de Municipios y Concejos para el ejercicio 2026, y aprobar la aportación económica al citado Fondo por importe de 33.000 euros, con cargo a la aplicación presupuestaria 1-2399-48204 correspondiente del vigente presupuesto municipal.

**Modificación pormenorizada del Plan General Municipal.** El Pleno aprobó por unanimidad la modificación pormenorizada del Plan General Municipal para permitir la construcción de determinadas instalaciones en zonas verdes con el objetivo de mejorar la accesibilidad y la calidad del uso recreativo de los espacios públicos, así como para dotar de funcionalidad a las zonas verdes con la incorporación de elementos como fuentes, gradas y espacios cubiertos para mitigar el cambio climático.

## ETXEBIZITZA / VIVIENDA

## Etxebakar: babes ofizialeko 122 etxebizitza, emanik

Etxebakar auzo berria itxuratzen hasi da. Joan den maiatzean, izan ere, eraikitako lehen etxebizitzak eman ziren. Zehazki, babes ofizialeko 122 etxebizitza izan dira, guztiak ere salmentakoak, Plazaetxea Gestión S.L.en eskutik. Erroldatuek lehentasuna izan bazuten ere, azkenean erroldatu adjudikaziodunak 27 izan dira.
Gehienak 3 logela eta bi bainugelako etxeak dira. Lehen solairuan, ordea, hainbat tipologiatako 20 etxebizitza eraiki dira, 61/2013 Foru Dekretuan ezarritako erreserbarekin bat (4 etxebizitza, mugimen desgaitasun larria duten pertsonentzat, 3 logelakoak; familia ugariendako 3 etxebizitza, 4 logelakoak; 3 logelako beste 10 etxebizitza, eta 2 logelako 3 etxebizitza).
Ezkaba mendi magalaren azpian kokatua, Artikaberriko Etxebakar auzoa ingurune on-onean dago, naturatik hurbil, eta ongi komunikatua bai Iruñearekin, bai Berriobeitiko udalerriarekin.



## Entrega de 122 VPO en Etxebakar

La urbanización de Etxebakar empieza a tomar forma. El pasado mes de mayo tuvo lugar la entrega de las primeras viviendas edificadas. En concreto, una promoción de 122 viviendas de protección oficial, todas ellas en régimen de venta, a cargo de Plazaetxea Gestión S.L. Aunque fue una promoción con prioridad para personas empadronadas, finalmente son 27 las personas empadronadas adjudicatarias.
La mayoría son pisos de 3 habitaciones y dos baños, pero en la primera planta se han construido 20 viviendas de diferentes tipologías cumpliendo con las reservas contenidas en el DF 61/2013 (4 viviendas destinadas a personas con discapacidad motriz grave de 3 dormitorios, 3 viviendas destinadas a familias numerosas de 4 dormitorios, 10 viviendas más de 3 dormitorios y 3 viviendas de 2 dormitorios).
Situado bajo las faldas del monte Ezkaba, el sector Etxebakar de Nuevo Artica se encuentra en un entorno privilegiado, cerca de la naturaleza y bien comunicado con la capital navarra y con el municipio de Berrioplano.

# OSOKO BILKUREN LABURPENAK

Osoko bilkuretako aktak eta saioen grabazioak **www.berrioplano.es** webean daude eskura

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2026-03-18)

**Zinegotziak informazio batzordeetan ordezkatzeari buruzko erabakiak.** José Mª Irisarri (AAB) izan ezik gainerako zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak honako hau erabaki zuen: informazio batzordean edo eledunen batzarrean kide den zinegotzia bertaratzen ez bada, talde politiko bereko zinegotzi batek ordezkatu ahal izatea. Aldaketak indarra hartuko du, beste zinegotzia aipatu batzorde eta batzarrean agertzen hutsarekin.

**PPren mozioa Etxebakarreko trafikoari dagokionez.** PPk, mozioaren bidez, bide irtenbideak lehentasunez aztertu daitezela eskatu zuen, ikusirik ibilgailuen trafikoa handitu eginen dela Etxebakar inguruan eta udalerrian. EH Bildu mozioa onestearen alde agertu zen, baina 2. eta 3. puntuak aldatzea eskatuta. Azkenean, EB Bilduk proposatutako aldaketak onartu eta mozioa onetsi zen, 8 boto izan baitziren alde (EH Bildu, PPko 2, UPNko 2, AABko 1) eta 4 abstentzio (Plazaola, VPA eta PSN). Horrenbestez, Etxebakar sektorearen garapena eta bizitegi-okupazioa ikusirik, Berriobeitiko eta Berriozarko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzea onetsi zen, dagoeneko ezarria dagoen lan esparruaren baitan neurriak aurreikusi eta aurrera eraman ditzaten. Era berean, hiru erakundeak premiatzea onetsi zen, bide irtenbideak proposa ditzaten Etxebakarreko, Berriozarko eta Artikaberriko sarbideetako bide segurtasuna bermatze aldera, bai eta lehenbiziko biribilgunean ere. Udalak, azkenik, behar diren neurri teknikoak eta aurrekontu mailakoak hartzera premiatu zuen Nafarroako Gobernua, egoki jotzen diren irtenbideak ahalik eta lasterren ezartzeko.

**PSNren mozioa bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoari buruz.** PSNren mozioa irakurri ondoren, UPNk eta EH Bilduk zuzenketa bana aurkeztu zuten. UPNkoa ez zen onartu. EH Bildukoa, bai, ordea. Mozioa bozkatu eta onetsi zen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN), 4 aurka (PP eta UPN) eta abstentzio bat (AAB). Honatx edukia: Udalak bere borondatea agertu du bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoa Iruñerriko Mankomunitatearen (IM) bidez eta kudeaketa mankomunatua erabiliz emateko; IM premiatzea, eskualdekatze-prozesuaren buru izan dadin eta Iruñerriko herri guztietan bizikleta elektrikoen sistema publikoa ezartzeko proiektu teknikoa egin dezan; Udalaren, IMren eta Iruñerriko gainerako udalen artean irekitako prozesuari jarraipena ematea, zerbitzua udalerri atxiki guztietan pixkanaka ezartze aldera; eta metropoli-eredua ezartzea zaildu edo atzeratuko duen iraupen luzeko udal-emakida berririk ez onartzea.

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2026-04-07)

**2023ko ekainaren 28ko osoko bilkuran boto haztatuaz hartutako erabakiari buruzko erabakiak.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, José Mª Irisarri (AAB), Unai Calvo eta Luis González (Plazaola) izan ezik. Udalbatzak atzera bota zuen guztiz osoko bilkurak 2023ko ekainaren 28an erabakitakoa, zeinaren bidez ezarri baitzen informazio batzordeetako bozketak boto haztatuaren bidez egitea (boto haztatua legez kontrakoa da batzordeetan, errepresentatiboa delako, baina ez, proportzionala); eta erabaki berria indarrean sartzen denetik, informazio batzordeek gehiengo soilez hartzea erabakiak; bestalde, berdinketarik bada, batzordeburuaren kalitatezko botoa erabiliko da; azkenik, botoaren zentzua aktan jasoko da eta, kasua bada, baita boto partikularrak ere, organo horien ohiko funtzionamendu araubidearekin bat. 5 boto izan ziren alde (EH Bildu, Plazaola eta VPA) eta 5 abstentzio (PP, UPN eta AAB).

### PREVENCIÓN / PREBENTZIOA

## Nuevos desfibriladores / Desfibriladore berriak

El Ayuntamiento ha cambiado los desfibriladores de todo el municipio. La empresa IDM Medical ha sustituido los anteriores, que se encontraban obsoletos y en algunos casos dañados, por desfibriladores de última generación. En total, se han instalado 15 dispositivos: 1 en cada pueblo (se ha colocado uno en Berriosuso, que no tenía) y 5 de refuerzo (1 en la escuela infantil de Artica, 1 en la escuela infantil de Berriosuso, 1 en la puerta del Ayuntamiento, 1 en el coche de los alguaciles y 1 en la farmacia 24 horas de Artica). Los nuevos desfibriladores, CR2 Lifepak y 360 julios de potencia, son los más modernos del mercado y se pueden aplicar a niños y a adultos. Aunque su funcionamiento es muy sencillo porque cuenta con una guía que va explicando los pasos, la empresa ha organizado cursos gratuitos para toda la población interesada.



Udalak udalerri guztiko desfibriladoreak aldatu ditu, zaharkituak baitzeuden. Izan ere, IDM Medical enpresak aurrekoak kendu eta azken belaunaldikoak jarri ditu. Guztira, 15 gailu jarri dira; bat herri bakoitzean (Berriobeitin bat paratu da, ez baitzuen) eta, beste 5, errefortzurako (bat, Artikako haur eskolan; bat, Berriogoitiko haur eskolan; bat, udaletxeko atean; bat, albienteen autoan, eta bat, Artikako 24 orduko botika dendan). Desfibriladore berriek (CR2 Lifepak) 360 jouleko potentzia dute eta merkatuan dauden modernoenak dira; gainera, haurrei eta helduei aplikatzen ahal zaizkie. Oso funtzionamendu erraza dute, gida batek urrats guztiak azaltzen dituelako; hala ere, enpresak doako ikastaroak antolatu ditu interesa duen jende guztiarendako.

### IKASTARO BERRIA / NUEVO CURSO

## 82 matrikula haur eskoletan

Matrikula epea bukatu eta gero (ekainak 1 eta 2), 82 haurrek eman dute izena Berriogoitiko eta Artikako haur eskoletan, 2026/2027 ikasturterako. Artikan, 44 toki eskaini eta guztiak bete dira, eta Berriogoitin, berriz, 39 bete eta 6 hutsik gelditu dira: bat, bularreko umeen taldean, eta 5, handien taldean.

## 82 matrículas en las Escuelas infantiles

Tras la formalización de las matrículas, que tuvo lugar los días 1 y 2 de junio, 82 niños y niñas se han inscrito en las Escuelas infantiles de Berriosuso y Artica para el curso 2026/2027. En Artica se han cubierto las 44 plazas ofertadas y en Berriosuso se han cubierto 39 plazas y han quedado vacantes6 plazas: una en el grupo de lactantes y 5 en el grupo de mayores.

**Herritarrendako Arreta Zerbitzua**
**Udala:** 9:00 - 14:00 / 948 303129 / Astelehenetik ostiralera
**Artigune II:** Leonor Akitaniakoa, 26 (Artika). 9:00 - 14:00, astelehenetik ostiralera

### OSOKO BILKURA ARRUNTA (2026-05-05)

**Lurralde kontribuzioaren zergan hobariak arautzen dituen ordenantza fiskalari buruzko erabakiak.** Lurralde kontribuzioaren zergan hobariak arautzen dituen ordenantza fiskalari buruzko erabakiak
Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, José Mª Irisarri (AAB) izan ezik. Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Berriobeitiko Udaleko lurralde kontribuzioaren zergan hobariak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa, zerga-kargan ekitate handiagoa bermatze aldera, ahalegin fiskala familia-unitateen benetako gaitasun ekonomikora egokituz eta gizarte kohesioa bultzatuz (giza talde zaurgarrienen babesa sendotuz); aldi berean, hobariak ezartzea, trantsizio energetikoa sustatzeko, autokontsumoa bultzatzeko eta ingurumen jasangarritasuna ere bultzatzeko.

**Eskaeraren araberako garraio zerbitzuaren tarifa aldatzeari buruzko erabakiak.** Udalbatzak eskaeraren araberako garraio zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskala aldatu zuen, 8 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, AAB, VPA eta PSN) eta 4 abstentzio (PP eta UPN).

**Kirol guneak eta pilotalekuak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeari buruzko erabakiak.** Eguneko aztergai hori aho batez onetsi zen. Horrenbestez, kirol guneak eta pilotalekuak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatu zen.

### OSOKO BILKURA BEREZIA (2026-05-15)

**Udal liburutegirako udal eraikin berria egiteko obra-kontratuari buruzko erabakiak.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, José Mª Irisarri (AAB) izan ezik. Osoko bilkurak liburutegi publikorako eraikin berria eraikitzeko kontratua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedientea onetsi zuen. Horrekin batera, eraikin berria eraikitzeko obrak egiteko obra-proiektua onetsi zen, bai eta kontratazioaren agiri arautzaileak ere prozedura irekia erabiliz. Obrarako gastua ere, hots, 5.044.628,70 euro (BEZa barne), bi urtealditan gauzatuko dena, 2026an eta 2027an. Azkenik, kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko prozeduraren irekiari ekitea onetsi zen. 7 boto izan ziren alde (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN) eta 5 aurka (PP, UPN eta AAB).

### OSOKO BILKURA BEREZIA (02-06-2026)

**Diru-sarreren bidez sortutako kredituen aurrekontu aldaketa.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, José María Irisarri (AAB) izan ezik. Bi aurrekontu-aldaketak puntuz puntu bozkatu zituen udalbatzak. Lehena 268.660 euroko kreditu bat sortzea, hondatuak dauden etxeak eraisteko, baldin eta jabeek halakorik egiterik ez badute. Aho batez onetsi zen. Bigarrena aldaketa udaletxeko obretarako aurrekontua aldatzeko eta 120.213,35 euroan handitzeko. Zenbateko hori Nafarroako Gobernuak ordainduko du 2026-2028ko Toki Inbertsiorako Planaren bidez. Bi aldaketak onetsi ziren, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, PSN eta VPA); 4, kontra (UPN eta PP) eta abstentzio 1 (AAB).

**% 0,8ko dirulaguntzei buruzko erabakiak.** Udalbatzak Garapenaren aldeko Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsean parte hartzea erabaki zuen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, PSN eta VPA) eta 5 kontra (UPN, PP eta AAB). Udalak 33.000 euroko zenbatekoa emanen dio Funtsari 2026ko ekitaldirako, gaur egun indarrean dagoen udal aurrekontuari dagokion 1-2399-48204 aurrekontu-aplikazioaren kargura. Funtsa Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak sustatua da.

**Udal Plan Orokorraren aldaketa xehatua.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Udal Plan Orokorraren aldaketa xehatua, instalazio jakin batzuk berdeguneetan eraikitzeko, gune publikoen irisgarritasuna eta aisia-erabileraren kalitatea hobetzeko, bai eta berdeguneei funtzionaltasuna emateko ere, iturriak, harmailak eta esparru estaliak jarriz, klima-aldaketa arintze aldera.

MUGIKORTASUNA / MOVILIDAD

## Tarifa berria eta aldaketak, eskaeraren araberako taxi zerbitzuan

Herritarren benetako beharrei erantzute aldera, eskaeraren araberako taxi zerbitzua Iruñeraino iristen da orain, Aduanako Zokoan geralekua ezarri baita. Horrela, erabiltzaileak azkarrago iristen dira hiriburura beren mandatuak eta zereginak erosoago egiteko: administrazio tramiteak, osasun hitzorduak, ospitalera bisitak, erosketak edota beste zernahi betebehar.
Zerbitzua zabaltzeak billetearen prezioaren igoera eragin du, orain 2 euro balio baitu. Txartela erosi baina ez badugu erabiltzen, dirua udaletxeko bulegoetan jasotzen ahalko dugu, txartela leihatilara eramanez.
Eskaeraren araberako taxi zerbitzua Añezkar, Larrageta, Oteitza, Elkarte, Ballaraiain eta Lotza herrietarako da. Zerbitzua erabili ahal izateko, erabiltzaile gisa egon beharra dago alta hartuta udalean. Behin baldintza hori beteta, erabiltzaileek San Fermin Tele Taxi Elkartera deitu behar dute, gutxienez ordu erdi lehenago, ohiko telefonoetara (948232300 edo 948351335), eta adierazi, taxi zerbitzu partekatuaren erabiltzailea dela, bai eta zenbat lagun diren eta zer ordutegi eskatzen den ere.

## Nueva tarifa y cambios en el servicio de taxi a demanda

Con el fin de atender las necesidades reales de la población, el servicio de taxi a demanda ha ampliado su servicio hasta Pamplona con una nueva parada en el Rincón de la Aduana. De esta forma, las usuarias y usuarios podrán conectar de forma más rápida y cómoda con la capital navarra para realizar trámites administrativos, citas médicas, visitas hospitalarias, compras o cualquier obligación que requiera su presencia en Pamplona.
La ampliación del servicio supondrá un aumento del precio del billete, que a partir de ahora costará 2 euros. Los tiques adquiridos y no utilizados podrán ser reembolsados en las oficinas del Ayuntamiento, previa presentación de los mismos en ventanilla.
El servicio de taxi a demanda está dirigido a las localidades de Añezkar, Larragueta, Oteiza, Elcarte, Ballariain y Loza. Para poder hacer uso de este servicio, es necesario estar dado de alta como usuario en el Ayuntamiento. Una vez cumplido este requisito, las personas usuarias deben contactar con la Asociación Tele Taxi San Fermín con, al menos, media hora de antelación en los teléfonos habituales 948232300, 948351335, e indicar su condición de usuarios del servicio de taxi compartido, el número de personas y el horario solicitado.

# INFORMACIÓN MUNICIPAL
# UDAL INFORMAZIOA

GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES

## Gizarte Zerbitzuak, lankidetzan atzerritarren ezohiko erregularizazioan

Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea lankidetzan ari da atzerritarren ezohiko erregularizazioan. Halako prozesuak tarteka egin dira 80ko hamarkadatik hona, migrazioa kudeatzeko orduan. Legeak bi baldintza ezarri ditu egoera erregularizatzeko: batetik, Estatu Espainolean egotea 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen (gutxienez 5 hilabeteko egonaldi jarraitua frogatzea eskaera egiteko unean); eta bestetik, aurrekari penalik ez izatea eta mehatxurik ez gertatzea ordena publikorako, segurtasun publikorako edo osasun publikorako.
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kalteberatasun txostenak bideratzen eta kudeatzen ditu. Ziurtapen eredu hori (doakoa eta Ministerioak egina) bete beharreko baldintza da bakarrik bizi diren pertsonentzat, hau da, seme-alaba adingabeekin bizi ez direnentzat, desgaitasuna duten edo laguntza behar duten seme-alaba adin nagusikoekin bizi ez direnentzat, eta beren edota bikotekidearen gurasoekin bizi ez direnentzat; halaber, lan kontratua ez dutenentzat edota kontratua lortzeko aukerarik ez dutenentzat, eta asilorik eskatu ez dutenentzat.
Ezohiko erregularizazio prozesua joan den apirilaren 20an hasi zenetik, Mankomunitateak 300 eskaera bideratzeaz gain, 350 informazio eskaera baino gehiago artatu ditu, bai aurrez aurre, bai telefonoz.
Erabiltzaileak baldin badira eta, langilerik badago, txostena une horretan bertan betetzen zaie. Kasu berriak direnean, hitzordua ematen zaie beste egun baterako, pertsonari buruzko informazioa jasotzeko.
Behin txostena beteta dutenean, Nafarroan eskura dauden hiru informazio zerbitzuetako edozeinetara jo behar dute informazioa jasotzera txostena zer lekutan erregistratu behar duten jakiteko. Honatx zerbitzuak: Atzerritartasun arloko Arreta eta Aholkularitza Zerbitzua; Migrazioen arloko Oinarrizko Informazio eta Orientazio Zerbitzua; eta Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzua (Nafarroako Gobernua).
Kalkuluen arabera, Nafarroan 10.000 lagunek erregularizatu lezakete egoera ezohiko prozesuaren bidez; haietako 5.000k, Iruñean eta Iruñerrian.

## Servicios Sociales colabora en la regularización extraordinaria de extranjería

La Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Iza y Juslapeña colabora en la regularización extraordinaria de extranjería, una práctica de gestión migratoria consolidada desde los años 80. Para acceder a la regularización, la ley establece dos requisitos: encontrarse en el Estado español antes del 1 de enero de 2026 (acreditar permanencia ininterrumpida de al menos 5 meses en el momento de la solicitud); y carecer de antecedentes penales y no suponer amenaza para el orden público, la seguridad pública o la salud pública.
La Mancomunidad de Servicios Sociales participa en esta regularización como tramitadora y gestora del **informe de vulnerabilidad**. Este modelo de certificado, elaborado por el Ministerio y gratuito, es requisito necesario para aquellas personas que están solas, es decir, que no viven con sus descendientes menores de edad, ni con descendientes mayores de edad con discapacidad o con necesidad de apoyo, ni con sus padres o madres o los de su pareja; para aquellas personas que no tienen un contrato de trabajo, ni posibilidad de conseguirlo y para las que no han solicitado asilo.
Desde que se inició el proceso de regularización extraordinaria, el 20 de abril, la Mancomunidad ha tramitado 300 solicitudes y atendido más de 350 solicitudes de información presencial y/o telefónica.
Si son usuarias y hay disponibilidad de personal, se les rellena el informe en ese momento. Cuando son casos nuevos, se da cita para otro día con el fin de recoger información. Una vez que tienen el informe cumplimentado deben informarse en cualquiera de los tres servicios de información disponibles en Navarra (Servicio de Atención y Asesoramiento en materia de Extranjería, Servicio de Información y Orientación Básica en materia de migraciones y Servicio de Atención a la Ciudadanía del Gobierno de Navarra) sobre el lugar en el que tienen que registrarlo.
Se estima que en Navarra 10.000 personas, 5.000 de ellas en Pamplona y Comarca, podrían beneficiarse de la regularización extraordinaria.

GIZALEGEA / CIVISMO

## Edukiontzi barnean, mesedez

Gauero antzeko irudia ikusten dugu edukiontzi aunitzetan: zabor poltsa irekiak, altzari abandonatuak, eta hondar barreiatuak. Hondakinak edukiontzien ondoan, kanpoan, uztea arazoa da, oso gauza itsusia izateaz gain, usain txarrak eragiten baititu, bai eta osasun arazoak ere ere. Hori dela eta, Udalak oroitarazi du debekatua dagoela hondakinak eta tamaina handiko altzariak eremu publikoan uztea eta araudia ez-betetzeak zigorrak dakartzala. Gizalegearen aurkakoa baita. Horrelakoak, batez ere, txartel bidez irekitzen diren edukiontzien inguruetan gertatzen ari dira. Gogoratu behar da, txartel fisikoaz gain, aplikazio mugikor batek ere ematen duela edukiontzia irekitzeko aukera (SIGMA MCP aplikazioa Google Play Androiderako edo App Storen IOSerako). Iruñerriko Mankomunitateak arazoa konpontzeari ekin dio eta, Iruñerriko Udalekin elkarlanean, ekintza sorta bat abiarazi du arazoa konpontzeko.



## Dentro del contenedor, por favor

Es una escena que se repite en muchos contenedores cada noche: bolsas de basura abiertas, muebles abandonados y restos esparcidos. El llamado “bolseo” se ha convertido en un problema que, además de generar un deterioro visual importante, acarrea malos olores y problemas de salubridad. Por eso, el Ayuntamiento quiere recordar que está prohibido abandonar residuos y voluminosos en las vías públicas y que el incumplimiento de esta normativa acarrea sanciones. Esta práctica tan poco cívica afecta especialmente a entornos de contenedores de apertura con tarjeta. Hay que recordar que, además de la tarjeta física, existe una aplicación móvil que permite abrir el contenedor (aplicación SIGMA MCP en Google Play para Android o en App Store para IOS).
La Mancomunidad de la Comarca de Pamplona ya se ha puesto manos a la obra y ha iniciado un conjunto de acciones para combatir el bolseo en colaboración con los ayuntamientos de la Comarca.

INFRAESTRUCTURAS MUNICIPALES / UDAL AZPIEGITURAK

# Las obras de la nueva Biblioteca, tras el verano

# Liburutegi berriko lanak, uda ondoren

**Apirilaren 29an, Udalak Berriobeitiko Liburutegi Publiko berria aurkeztu zuen. Artikaberrin eraikiko da eta 1.262 m² izanen ditu. Beraz, Iruñerriko handiena izanen da, Txantreako Liburutegi Publikoaren ondotik.**

**El 29 de abril el Ayuntamiento presentó la nueva Biblioteca Pública de Berrioplano, que se ubicará en Nuevo Artica. La instalación, de 1.262 m², se convertirá en la segunda más grande de la comarca de Pamplona, solo por detrás de la Biblioteca Pública de la Txantrea.**

El proyecto para la nueva Biblioteca Pública de Berrioplano, elaborado por la empresa Peralta-Ayesa Arquitectos, plantea un edificio dotado de un vestíbulo con dos accesos (desde la ciudad y desde el parque de los Aromas) y de tres zonas principales: una zona de acogida, una zona general y una zona infantil. Tendrá una superficie de 1.262 m² y se ubicará en el Sector "Mogotes" de Nuevo Artica.

En el **área de acogida** se ubicará el mostrador de atención, el área de auto préstamos y retorno de documentos y una sala polivalente para acoger actividades de la biblioteca, realizar proyecciones o ser utilizada como sala de estudio.

En la zona general se habilitará un novedoso **espacio de formación y creación** (*Makerspace*)- el primero que se instala en una Biblioteca Pública de Navarra-, dotado de tecnología y herramientas digitales (ordenadores, impresoras 3D, edición de vídeo y sonido...) para aprender a crear y desarrollar proyectos e ideas, bien individualmente o en grupos reducidos.

La zona general se completará con un **área de información y Fondo General** (342 m²), que contará con 6 puestos de ordenadores, un área de hemeroteca (revistas, diarios), un área de audiovisuales, una zona destinada a la biblioteca juvenil, un espacio de lectura formal y de trabajo, un espacio de lectura informal y un espacio documental; y con tres espacios de apoyo de 20, 19 y 21 m² respectivamente, que servirán como salas de trabajo para grupos.

La **zona infantil** dispondrá de un área de información y fondo infantil de 190,50 m² con 4 puestos de ordenadores, mostrador de información y préstamo, espacios de lectura formal e informal y espacio documental. Asimismo, se ha previsto un espacio de apoyo para realizar actividades y una **zona de lactancia y biberones**.

En lo que respecta a la imagen **exterior del edificio**, se ha apostado por tres materiales: piedra, madera y vidrio. Para integrarlo con el espacio verde del Parque de los Aromas, se ha propuesto un acabado vegetal en la cubierta y una franja vegetal perimetral.

El proyecto, cuya inversión asciende a 5.100.000 euros, tiene un plazo de ejecución de 14 meses. La intención del Ayuntamiento es que las obras comiencen después del verano, por lo que la infraestructura estaría lista para finales de 2027 o principios de 2028.





Peralta-Ayesa Arquitectos enpresak egina, Berriobeitiko Liburutegi berrirako proiektuaren arabera, eraikinak atondo bat izanen du eta bi sarbide (hiritik eta Usain Gozoen parketik), eta hiru eremu nagusi ere bai: harrera eremua, eremu orokorra eta haur eremua. 1.262 m2 izanen ditu luze-zabaleran eta Artikaberriko "Mogotes" deritzon aldean kokatuko da.

**Harrera eremuan**, hainbat gune kokatuko dira, hala nola harrera-mostradorea, dokumentuak auto-mailegatzeko eta itzultzeko gunea, eta erabilera anitzeko areto bat, ikasteko eta liburutegiko jarduerak eta proiekzioak egiteko.

Eremu orokorrean, **prestakuntza eta sorkuntza eremu** berritzaile bat jarriko da (Makerspace), hots, Nafarroako Liburutegi Publiko batean paratuko den lehena, teknologia eta tresna digitalez hornitua (ordenagailuak, 3D inprimagailuak, bideo eta soinu edizioa...), proiektuak eta ideiak sortzen eta garatzen ikasteko, dela bakoitzak berea, dela talde txikietan.

Eremu orokorrean, halaber, **informazio gune bat eta Funts Orokorra** (342 m²) egonen dira, honela osatua: 6 ordenagailu postu, hemeroteka gunea (aldizkariak, egunkariak), ikus-entzunezko gunea, gazte liburutegirako gunea, irakurtzeko eta lan egiteko gune bat, irakurketa informalerako gunea eta gune dokumental bat; gainera, taldeendako hiru lan-areto, 20, 19 eta 21 m²-koak, hurrenez hurren.

**Haur eremuak**, berriz, 190,50 m²-ko informazio eta haur funtsetarako gune bat izanen du, honela osatua: 4 ordenagailu postu, informazio eta mailegurako mostradorea, irakurketa formalerako eta informalerako guneak, eta gune dokumentala. Era berean, jarduerak egiteko gune bat dago aurreikusia, bai eta **bularra eta biberoia emateko toki** bat ere.

**Eraikinaren kanpo** irudiari dagokionez, hiru material nabarmenduko dira: harria, zura eta beira. Usain Gozoen Parkearen berdegunean egokiro txertatze aldera, akabera begetala proposatu da estalkirako eta halako landare-zerrenda bat inguruz inguru. 5.100.000 euroko inbertsioa eginen da, eta gauzapen epea 14 hilabetekoa da. Udalaren asmoa da lanak uda ondoren hastea. Liburutegia, beraz, 2027 bukaeran edo 2028 hasieran egonen litzateke prest.

# KIROLAK
# DEPORTES

OFERTA MUNICIPAL / UDALAREN ESKAINTZA

## Verano en las instalaciones deportivas de Artica y Berrioplano

## Uda, Artikako eta Berriobeitiko kirol-instalazioetan

**Instalaciones deportivas de Artica**
**Artikako kirol instalazioak**
948 80 37 48
**Instalaciones deportivas de Berrioplano / Berriobeitiko kirol instalazioak**
948 30 38 52

Tanto en las instalaciones deportivas de Berrioplano como en las de Artica ya han dado el pistoletazo de salida a la temporada estival. Desde el pasado 6 de junio y hasta el 5 de septiembre se podrá disfrutar de las piscinas de verano (tanto de las exteriores como las climatizadas). En Berrioplano, en horario de 10:00 a 21:00. En Artica, las de verano horario de 10:00 a 21:00 y las cubiertas de 8:00 a 21:30.

Berriobeitiko eta Artikako kirol instalazioetan udaldiari ekin diote. Izan ere, udako igerilekuak ekainaren 6an zabaldu eta irailaren 5ean itxiko dira (hala kanpoaldekoak nola klimatizatuak). Berriobeitin, 10:00etatik 21:00etara. Artikan, udakoak, 10.00etatik 21:00etara, eta estaliak, 8:00etatik 21:30era.



### AQUAZUMBA (18:30-19:15)

Clases gratuitas (en exterior si el tiempo lo permite)

**BERRIOPLANO**
17, 24 y 31 de julio

**ARTICA**
7, 14, 21 y 28 de agosto

### ANIMACIÓN INFANTIL

**BERRIOPLANO**
"Miércoles locos"

15 de julio, 17:00
JUEGOS DE LANZAMIENTO

23 de julio, 17:00
AQUAVOLEY

22 de julio, 17:00
PINTA CARAS

29 de julio , 17:00
INICIACIÓN AL WATERPOLO

05 de agosto, 17:00
FRISBEE GOLF

12 de agosto, 17:00
TALLER PINTA PIEDRAS

19 de agosto, 17:00
PAPIROFLEXIA

26 de agosto, 17:00
VOLEIBOL / VOLEIBOL ACUÁTICO

02 de septiembre, 17:00
JUEGOS ACUÁTICOS

**ARTICA**
"Viernes divertidos"

17 de julio, 17:30
JUEGOS DE LANZAMIENTO

24 de julio, 17:30
INICIACIÓN AL WATERPOLO

31 de julio, 17:30
PAPIROFLEXIA

7 de agosto , 17:30
VOLEIBOL / VOLEIBOL ACUÁTICO

14 de agosto, 17:30
JUEGOS DE LANZAMIENTO

21 de agosto, 17:30
PINTA CARAS

28 de agosto
PROGRAMA ESPECIAL ANIVERSARIO DE LAS INSTALACIONES

4 de septiembre, 17:00
JUEGOS ACUÁTICOS

## Además...

En junio, julio y agosto en las instalaciones de ARTICA y en las de BERRIOPLANO se ofertan:

- **cursos de natación intensivos**, **para bebés** y **aquagym**
- **actividades en seco** (fitness para personas adultas)
- **iniciación a la fuerza** para mayores de 65 años
- **campus de verano multiactividad** para niños y niñas de 4 a 7 años y de 8 a 12 años.

## Gainera...

Ekainean, uztailean eta abuztuan, ARTIKAko eta BERRIOBEITIko instalazioetan honakoak eskainiko dira:

- **igeriketa ikastaro trinkoak**, **umetxoendako** eta **aquagym**
- **lehorreko jarduerak** (fitness helduentzat)
- **indarra lantzen hastea** 65 urtetik gorakoendako
- **jarduera anitza, udako campusa** 4-7 urteko eta 8-12 urteko haurrentzat.



### AQUAZUMBA (18:30-19:15)

Doako eskolak (kanpoan, eguraldiak laguntzen badu)

**BERRIOBEITI**
Uztailak 17, 24 eta 31

**ARTIKA**
Abuztuak 7, 14, 21 eta 28

### HAUR ANIMAZIOA

**BERRIOBEITI**
"Asteazken eroak"

Uztailak 15, 17:00
JAURTIKETA JOKOAK

Uztailak 23, 17:00
AQUAVOLEY

Uztailak 22, 17:00
AURPEGI MARGOKETA

Uztailak 29, 17:00
WATERPOLOAN HASTEA

Abuztuak 5, 17:00
FRISBEE GOLF

Abuztuak 12, 17:00
HARRIAK MARGOTZEKO TAILERRA

Abuztuak 19, 17:00
PAPIROFLEXIA

Abuztuak 26, 17:00
BOLEIBOLA / URETAKO BOLEIBOLA

Irailak 02, 17:00
URETAKO JOLASAK

**ARTIKA**
"Ostiral dibertigarriak"

Uztailak 17, 17:30
JAURTIKETA JOKOAK

Uztailak 24, 17:30
WATERPOLOAN HASTEA

Uztailak 31, 17:30
PAPIROFLEXIA

Abuztuak 7, 17:30
BOLEIBOLA / URETAKO BOLEIBOLA

Abuztuak 14, 17:30
JAURTIKETA JOKOAK

Abuztuak21, 17:30
AURPEGI MARGOKETA

Abuztuak 28
INSTALAZIOEN URTEMUGAREN EGITARAU BEREZIA

Irailak 24, 17:00
URETAKO JOLASAK

## KIROL HITZORDUAK / CITAS DEPORTIVAS







# Txirrindularitza, futbola, irristaketa, herri lasterketa eta ibilaldiak

# Ciclismo, fútbol, patinaje, carrera popular y paseos

Berriobeitin eta Artikan hainbat kirol jarduera eginen dira udan. **Uztailaren 19**an, igandearekin, emakumezkoen **Iruñeko Txirrindularitza Itzulia**ren bigarren etapa iritsiko da Berriobeitira, irteera eta helmuga gure udalerrian egonen direla. **Abuztuaren 26**an, astearkenarekin, kirol hitzordua Artikako plaza Nagusian izanen da, aurten ere **Osasuna Fundazioaren 3X3 Futbol Plaza txapelketa** eginen baita arras giro onean eta sariak banatuta. Eta **irailaren 5**ean, Articapatin irristaketa klubak **Artikako II. Irristaketa Proba** antolatu du plaza Nagusian. Haurrak 10:30ean eta absolutua 11:30an. Bestalde, Artikako CD Korrikolaris klubak **Artikako IX. Herri Lasterketa** antolatu du **irailaren 6**rako (igandea). 7,14 km-ko proba da, % 18,8ko malda izanen du gehienez, Artikaberriko María Domínguez plazatik abiatzeko, Berriobeiti eta Berriozar gurutzatuta. Haur lasterketa 10:30ean hasiko da, eta absolutua, 11:30ean.
Bestalde, **"Ibilaldi osasuntsuak"** programak ez du oporrik hartuko. izan ere, **uztaila**ren **3**an eta **irail**aren **4**an (ostirala) ibilaldiak eginen dira, Berriobeitiko kontsultategitik abiatuta.

Berrioplano y Artica acogerán en verano diversas actividades deportivas. El domingo **19 de julio** la **Vuelta Ciclista Pamplona** femenina llegará a Berrioplano en su segunda etapa, con salida y llegada al municipio. El miércoles **26 de agosto** habrá cita deportiva en la plaza central de Artica, donde un año más se celebrará el **campeonato de Fútbol Plaza 3X3 Fundación Osasuna**, con premios y muy buen ambiente. Y el **5 de septiembre**, el club de patinaje Articapatin ha programado la **II Prueba de Patinaje de Artica** en la plaza central. Será a las 10:30 (infantil) y a las 11:30 (absoluta). Por su parte, el CD Korrikalaris de Artica ha organizado para el domingo **6 de septiembre** la **IX Carrera Popular de Artica**, una prueba de 7,14 km y una pendiente máxima de 18,8% que parte de la plaza María Domínguez de Nuevo Artica y discurre por Berrioplano y Berriozar. La carrera infantil saldrá a las 10:30 y la absoluta a las 11:30.
Por otro lado, el programa **"Paseos saludables"** no se irá de vacaciones. Los **viernes 3 de julio y el 4 de septiembre** habrá paseos, con salida desde el consultorio de Berrioplano.

## 2026-2027KO UDAL IKASTAROAK / CURSOS MUNICIPALES 2026-2027

### Aurreinskripzioak, irailaren 3tik 8ra

Aurreinskripzioak 012-Infolokal telefonoaren bidez egin behar dira (**948 012 012**). Onartuek irailaren 10ean eta 11n egin beharko dute ordainketa eta, toki librerik geratzen bada, izena emateko beste aukera bat izanen da hilabetea bukatu baino lehen.
Helduei zumba, entrenamendu funtzionala, yoga, pilates eta gimnasia aktiboa eskaini zaizkie, bai eta erorikoei aurrea hartzeko eta mugikortasuna lantzeko tailerra ere. Haurrei, berriz, judoa, eskupilota, Go!azen-ekin dantzan, gimnasia erritmikoa eta eskalada. Gazteei, azkenik, gazte aisialdirako gunea prestatuko da (jolasak eta jarduerak).
**Eskaintza osoa abuztuan zure postontzira iritsiko den liburuxkan ikusiko duzu, bai eta udalaren webgunean eta udalaren sare sozialetan ere: @berrioplanodeporteyjuventud**




### Preinscripciones, del 3 al 8 de septiembre

Las preinscripciones deben realizarse a través del teléfono 012-Infolocal (**948 012 012**). Las personas admitidas deberán realizar el pago los días 10 y 11 de septiembre y, en caso de que queden plazas libres, habrá una inscripción de repesca antes de que finalice el mes.
Para personas adultas se ofertan zumba, entrenamiento funcional, yoga, pilates, gimnasia activa y taller de prevención de caídas y movilidad. Las oferta infantil incluye judo, pelota a mano, bailando con Go!azen, gimnasia rítmica y escalada. Y el público juvenil podrá inscribirse en el espacio de ocio joven (juegos y actividades).
**Oferta completa en el folleto que llegará en agosto a tu buzón, en la web municipal y en redes sociales municipales @berrioplanodeporteyjuventud**

## KIROLA KOMUNITATEAN / DEPORTE EN COMUNIDAD

### Kirolaren Egunean, jarduera sorta oparoa

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jendea gogoz aritu zen gustu eta adin guztietarako antolatutako jarduera ugarietan. Goizean, denetariko gauzak egin ziren: haurrendako kirol jokoak (txirrindularitza, irristaketa eta atletismoa), eskalada-horma, golf-diskoa, eta ariketa handia, dantza eta musika ona zumba eta drums alive jardueretako masterclassean. Arratsaldean, haur kluben erakustaldiak egin ziren Berriobeitiko pilotalekuan, ikusle aunitz bertaratuta. Biharamunean, zesta punta izan zen ardatz. Goizean, udaleko pilota eskolaren ohiko erakustaldia egin zen; eta ondotik, pilotalekuan bertan, zesta punta partidu bat jokatu eta tailer bat ere egin zen adin guztietarako. Ikusle frankok eskuzorroa jantzi eta pilotarekin ere saiatu ziren.



### Un Día del Deporte muy variado

No acompañó el tiempo, pero sí las ganas de participar en la multitud de actividades organizadas para todos los gustos y edades. Por la mañana hubo juegos deportivos infantiles (ciclismo, patinaje y atletismo), muro de escalada, disco golf y mucho ejercicio, baile y buena música durante las masterclass de zumba y drums alive. Por la tarde se celebraron en el frontón de Berrioplano las exhibiciones de los clubes infantiles, con gran asistencia de público. Al día siguiente, la cesta punta fue la gran protagonista. La mañana arrancó con la tradicional exhibición de la Escuela de Pelota municipal y después el frontón acogió un partido de cesta punta y un taller para todas las edades. Hubo quienes disfrutaron de la experiencia de colocarse el guante que lleva incorporada la cesta y practicar con la pelota.



# ¡Nos metemos en un jardín!

**Los espacios verdes urbanos se han convertido en pequeños oasis de bienestar para la ciudadanía y para el medio ambiente. Por eso es tan importante garantizar su cuidado y mantenimiento. En Berrioplano, un equipo formado por 8 personas y dotado de maquinaria de última generación se encarga de conservar las áreas verdes de los diez pueblos.**

# Lorategiak, herritarrendako hauspo

**Hirietako berdeguneak oasi txikiak dira herritarrendako eta ingurumenerako. Horregatik da garrantzitsua ongi zaintzea eta mantentzea. Berriobeitin, 8 laguneko taldea arduratzen da hamar herrietako berdeguneak zaintzeaz, punta-puntako makinak erabiliz.**

Urbanizazio berrien garapena (Etxebakar, adibidez) eta egungoen hazkundea (Mogotes sektorea, kasu) benetako erronka dira udal zerbitzuetarako. Baita lorezaintza zerbitzurako ere, aunitz handitu baita zaindu eta mantendu beharreko berdeguneen azalera. Hortaz, behar bezalako erantzuna emateko, Udaleko Lorezaintza Zerbitzuan langile gehiago ari dira eta tresna gehiago ere erabiltzen dituzte. Gaur egun, 7 langile eta arduradun bat ari dira berdeguneak garbitzen eta edertzen. Lanak urtaroaren araberakoak dira, bai eta era askotakoak ere: lorategietako soropila moztea, zuhaitz-txorkoak konpontzea, landare-hesiak moztea, zuhaitzak inaustea, industrialdeak garbitzea, herri guztietako bide eta karriketako belar gaiztoak kentzea eta hilerriak moldatzea, urtean bi garai seinalatuetan: “Udaberrian belarra moztu behar izaten dugu, neurri gabe ez hazteko, landare-hesiak eta zuhaixkak inausi, eta ongi mantendu Berriogoitiko eta Artikako baratzeak, karrike tako belar txarrak kentzeaz gain. Udazkenean, garaiko landaketa egin, zuhaitzak birjarri, eta zuhaixkak inausi eta mozten ditugu. Neguan, ureztapen-sistema automatikoak hobetzen eta berrikusten ditugu, bai eta txorkoak ere, zuhaitzak ongarritzeaz gain; eta udan, lana ez da hain handia izaten, ez baitugu lan egiten ureztatzen ez diren sailetan”, azaldu digu **Jesús Mari López Goñi**k, hau da, Udaleko Lorezaintza Zerbitzuko arduradunak.

### Azken belaunaldiko makinak

Punta-puntako makinak erabiltzen dituzte garbiketa lanak egiteko: sasi-garbitzeko 8 makina; landare-hesiak mozteko 2 makina; 4 puzgailu; soropila mozteko 3 makina edo traktore; soropila eskuz mozteko 2 tresna; sasiak garbitzeko besoa duen traktore 1; kamioneta txiki bat eta kamioneta handi bat (biak irekiak); atoi bat, saski-kamioi bat, 1.000 litroko zisterna bat; eta punta-puntako makina bat, hots, ezpondetako sasiak garbitzeko robot bat. “Lana errazten diguten oso tresna teknologiko aurreratuak ditugu. Halaber, nabarmendu behar da Udalak zerbitzuaren kudeaketa publikoa sustatzeko egin duen apustua”.

Gaur egun, langile guztiek lorezaintza lan guztiak egiten dituzte, baina lana pertsonalizatzeko asmoa dago, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin. Horrela, Udalak jarduketa plan bat egin du lana taldeka banatzeko, eremu bakoitzerako egin behar diren lanak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen: hau da, bi langile Etxebakar urbanizaziorako eta parkerako, bai eta Artika herrirako ere; hiru langile, gainerako bederatzi herrietarako eta industrialdeetarako; eta bi langile, Artikaberrirako, Mogotes eta Artikako industrialderako. Talde bakoitzak -arduradunak koordinaturik- enkargatu zaion eremuaren beharren arabera jardungo du.

### Lana aire zabalean

Lorezaintzan ari direnek gehien maite duten alderdietako bat da lana aire zabalean egitea, bai eta jende gutxi bizi den lekuetan ere: “Lanak lasai egin ditzakegu, gure modura. Neguak ez dira lehen bezain gogorrak eta ez dugu hain hotz handirik pasatzen; eta udan, bero-kolpeak saihesteko, 5-10 minutuko pausaldiak egiten ditugun ordubete bakoitzeko. Agian, gogorrena da sasiak garbitzeko makinek egiten duten asotsa eta kaleetako zirrikituetako belar gaiztoak kentzea”.

Ureztapen-sisteman halako ekintza bandaliko txikiak gertatu badira ere (hamar ihinztagailu konpondu behar izan dira), herritarrek zinez errespetatzen dituzte lorategiak eta berdeguneak.







El desarrollo de nuevas urbanizaciones, como la de Etxebakar, y el crecimiento de las ya existentes, como el sector Mogotes, está suponiendo un reto para los servicios municipales. También para el de Jardinería, que ha visto cómo ha aumentado la superficie de zonas verdes que requieren atención y mantenimiento. Para dar respuesta a esta realidad, el Servicio municipal de Jardinería ha reforzado sus recursos humanos y materiales. Un equipo formado por 7 trabajadores y 1 encargado realiza labores de limpieza y embellecimiento de los espacios verdes. Los trabajos, que se distribuyen en función de las épocas del año, abarcan desde la siega del césped de los jardines, el arreglo de los alcorques de los árboles y el recorte de los setos hasta la poda de árboles, el control de las malas hierbas en caminos y calles de todas las localidades, limpieza de polígonos y el arreglo de cementerios en dos fechas señaladas a lo largo del año. "En primavera tenemos que cortar la hierba para mantenerla controlada, podar setos y arbustos y mantener en buen estado las huertas de Berriosuso y Artica, además de eliminar las malas hierbas en las calles. En otoño, se realiza la plantación de temporada, reposición de arbolado y poda y recorte de arbustos. En invierno, nos centramos en mejorar y revisar los sistemas de riego automáticos, repasar los alcorques y abonar el arbolado; y en verano desciende un poco el trabajo porque en las parcelas sin riego no se actúa", explica **Jesús Mari López Goñi**, encargado del Servicio municipal de Jardinería.

**Maquinaria de última generación**

Para llevar a cabo todas las labores de limpieza, cuentan con maquinaria de última generación: 8 desbrozadoras, 2 corta setos con prolongaciones, 4 sopladores, 3 cortacésped montables o tractores cortacésped, 2 cortacésped manuales, 1 tractor con brazo desbrozador, 1 camioneta pequeña y 1 camioneta mayor (ambas abiertas), 1 remolque, 1 camión cesta, 1 cisterna de 1.000 litros; y la joya de la corona, 1 robot para el desbroce de taludes. "Contamos con herramientas tecnológicas muy avanzadas que nos facilitan el trabajo. También hay que destacar la apuesta del Ayuntamiento por promover una gestión pública del servicio". Actualmente, todo el equipo participa en todas y cada una de las labores de jardinería, pero la idea es personalizar el trabajo para mejorar la eficiencia del servicio. El Ayuntamiento ha elaborado un Plan de actuación que tiene previsto distribuir el trabajo por grupos con el objetivo de optimizar las actuaciones necesarias para cada zona: dos trabajadores para la urbanización y parque de Etxebakar y pueblo de Artica; tres trabajadores para los nueve pueblos restantes y polígonos; y dos trabajadores para Nuevo Artica, Mogotes y el polígono de Artica. Cada grupo estará coordinado por el encargado y actuará en función de las necesidades de la zona asignada.

**Trabajo al aire libre**

Uno de los aspectos más apreciados por el equipo de jardinería es que su trabajo se realiza al aire libre y en zonas poco habitadas. "Podemos realizar las tareas tranquilamente, a nuestro aire. Los inviernos ya no son tan duros como antes y no pasamos tanto frío; y en verano, para evitar golpes de calor, hacemos pausas de 5-10 minutos cada hora. Quizás, lo más duro es el ruido que meten los desbrozadores y quitar las malas hierbas de las rendijas de las calles".

Aunque se han registrado pequeños actos de vandalismo en el sistema de riego -se han tenido que arreglar diez aspersores-, la ciudadanía es muy respetuosa con los jardines y áreas verdes.

# KULTURA
# CULTURA

TEATRO, MAGIA Y CINE / ANTZERKIA, MAGIA ETA ZINEMA

## Plan de verano: teatro y cine al aire libre

El Servicio de Cultura, en colaboración con los Concejos, ha organizado para los meses de verano un variado programa de actividades al aire libre para disfrutar en los pueblos de la Cendea.

## Udarako asmoa: antzerkia eta zinema aire zabalean

Kultura Zerbitzuak, kontzejuekin elkarlanean, aire zabaleko jardueren egitarau askotarikoa antolatu du udako hilabeteetarako, Zendeako herrietan gozatzeko.



### TEATRO
Domingo
26 de julio
Aizoáin
19:30

**“Sinfónica Afónika” ZIRIKA ZIRKUS Público familiar. 60 minutos**

La Sinfónika Afónika ha llegado a la plaza del pueblo. Después de pasar toda la vida en el Conservatorio, sus artistas inician una nueva andadura dispuestos/as a mostrar sus habilidades…
La especialidad de la compañía Zirika Zirkus es la creación de espectáculos de teatro-circo para toda la familia, fusionando técnicas como equilibrios, acrobacias, acroportes, clown y malabares con música y bailes. Obras llenas de humor realizadas con mucho amor.

### ANTZERKIA
Uztailak 26, igandea
Aitzoain
19:30etan

**“Sinfónica Afónika” ZIRIKA ZIRKUS Publiko familiarra 60 minutu**

Sinfónika Afónika zure herriko plazara heldu da. Bizitza guztia kontserbatorioan eman ondoren, artistek beren ibilbideari ekin diote eta beren dohainak erakusteko prest agertuko dira…
Zirika Zirkus taldearen espezialitatea antzerki-zirku ikuskizunak sortzea da etxeko guztientzat, hainbat teknika uztatuz, hala nola orekak, akrobaziak, akroporteak, clown eta malabareak, bai eta musika eta dantzak ere. Umorez betetako lanak, maitasunez eginak.



### TEATRO
Viernes
31 de julio
Larragueta
18:00

**“La llegada” .KOILARA TEATRO. Todos los públicos. 55 minutos**

Una nave extraterrestre está a punto de llegar a la Tierra… Un evento histórico que será retransmitido por dos reporteros radiofónicos emocionados por ser los narradores de tal acontecimiento. Ellos y el público tendrán que preparar una estrategia de bienvenida para que estos invitados tan especiales que vienen desde otras galaxias se sientan como en casa. Porque la primera impresión es muy importante. Hay que dar buena imagen.

### ANTZERKIA
Uztailak 31, ostirala
Larrageta
18:00

**“La llegada” KOILARA TEATRO Publiko guztiak / 55 minutu**

Ontzi estralurtar bat Lurrera iristear dago… Bi irrati-erreportarik emango dute gertaera historiko horren berri, eta hunkituta daude gertakari horren narratzaileak izango direlako. Haiek eta ikusle guztiek ongietorria egiteko estrategia bat prestatu beharko dute, beste galaxia batzuetatik bisitatzen gaituzten gonbidatu berezi horiek etxean bezala senti daitezen.
Lehen irudipena oso garrantzitsua baita. Irudi ona eman behar da.



### CINE AL AIRE LIBRE
Sábado
15 de agosto
Oteiza, 22:00

**“Robot salvaje” (animación) . CHRIS SANDERS. A partir de 7 años. 102 minutos**

Un barco de carga pierde seis robots durante un tifón. Tras el naufragio, llegan a una isla deshabitada. Solo uno de ellos sobrevive al choque en plena costa. La robot Roz debe aprender a adaptarse al duro entorno, forjando poco a poco relaciones con la fauna local.
“Robot salvaje” es una película familiar de ciencia ficción, aventuras y supervivencia, que se estrenó en el Festival Internacional de Cine de Toronto. Se trata de la exitosa adaptación cinematográfica de la serie de libros del mismo nombre.

### AIRE ZABALEKO ZINEMA
Abuztuak 15, larunbata
Oteitza. 22:00

**“Robot salvaje” (animazioa) CHRIS SANDERS 7 urtetik gora 102 minutu**

Zamaontzi batek sei robot galdu ditu tifoiaren erdian. Itsasontziak hondoa jo eta gero, inor bizi ez den uharte batera iritsi dira robotak. Haietako bakar batek iraunen du bizirik kostaldean gertatutako talka gogorraren ondorioz. Roz robotak ingurune gogor batera egokitzen ikasi beharko du, poliki-poliki bertako faunarekin harremanak eginez.
Zientzia fikziozko eta abenturazko filma da familientzat, biziraupenaz mintzo dena, Torontoko Nazioarteko Zinemaldian estreinatua. Izen bereko liburu sortaren zinema-egokitzapen arrakastatsua da.

HERRIKO JAIAK / FIESTAS PATRONALES

## Festarik festa

Egun luzeak, eguraldi ona eta besta egiteko gogoa. Horra hor guztiz beharrezkoak diren hiru gauza herriko jaiak ospatzeko. Gure herriak hasiak dira festak ospatzen. Lehenak Berriobeiti eta Ballariain izan dira, biak ere ekain hasieran, besta giro ederrean. Oteitza izanen da hurrena, hilaren 19-21eko asteburuan eta, abuztutik aitzina, ugari izanen dira herri bazkariak, karrika doinuak, puzgarriak eta mus txapelketak gure herri aunitzetan. Larragetan, uztailaren 31tik abuztuaren 2ra eginen dira jaiak; Berriogoitin, abuztuaren 28-30ean; Añezkar, eta Elkarten, irailaren 4-6an; eta Artika eta Lotzan, irailaren 11tik 13ra.

## Nos vamos de fiesta

Muchas horas de luz, buen tiempo y ganas de celebración. Tres requisitos imprescindibles para celebrar las fiestas patronales. Nuestros pueblos ya han dado el pistoletazo de salida a la agenda festiva. Los primeros en hacerlo fueron Berrioplano y Ballariáin, que vivieron un arranque de junio de lo más alegre. Oteiza les tomará el testigo el fin de semana del 19 al 21 de junio y a partir de agosto las comidas populares, la música por las calles, los hinchables y los campeonatos de mus se sucederán en muchos de nuestros pueblos. En Larragueta las fiestas se celebrarán del 31 de julio al 2 de agosto; en Berriosuso, del 28 al 30 de agosto; en Añézar y Elcarte, del 4 al 6 de septiembre; y en Loza y Artica, del 11 al 13 de septiembre.



## CINE AL AIRE LIBRE
### Sábado 22 de agosto
### Plaza de Nuevo Artica
### 22:00

**"Se abre la veda" (comedia francesa)**
**FRÉDÉRIC FORESTIER, ANTONIN FOURLON**
**A partir de 7 años**
**102 minutos**

En un pueblo tranquilo, una casa de ensueño en medio de la nada está a la venta. Para Simon y Adelaide, que viven apretados en un piso parisino con sus dos hijos, es la oportunidad perfecta para escapar del ajetreo de la ciudad. Pero el sueño se convierte rápidamente en pesadilla cuando descubren que sus simpáticos vecinos están utilizando su jardín... ¡como terreno de caza! Comienza una guerra en la que todo está permitido.

## AIRE ZABALEKO ZINEMA
### Abuztuak 22, larunbata
### Plaza de Nuevo Artica
### 22:00

**"Se abre la veda" (Komedia frantsesa)**
**FRÉDÉRIC FORESTIER, ANTONIN FOURLON**
**7 urtetik gora**
**102 minutu**

Herri lasai batean, salgai dago ezerezaren erdian dagoen ametsezko etxe bat. Simon eta Adelaide estu-estu bizi dira Parisko etxe batean bi semealabekin, eta aukera ezin hobea da hiriko zorabiotik ihes egiteko. Ametsa, ordea, amesgaizto bilakatuko da berehala, ohartzen direnean beren auzokide jatorrek etxe horretako loratategia erabiltzen dutela, zertarako eta.... ehizarako! Gerra piztuko da, eta dena da zilegi.



## TEATRO
### Viernes 28 de agosto
### Berriosuso
### 18:30

**"La última y nos vamos"**
**TRAPU ZAHARRA**
**A partir de 7 años**
**60 minutos**

Un cómico callejero en horas bajas (Santi Ugalde) decide pasarse al teatro de sala.
En esta intentona se juntará con una actriz de teatro clásico (Vega Iguarán), a la que propondrá montar "Cinco horas sin Mario".
Para recaudar fondos, organizará un crowdfunding representando en la calle tres escenas del nuevo proyecto.
En sus más de treinta años de existencia, la compañía Trapu Zaharra ha producido una treintena de espectáculos, siempre en clave de humor y con predilección por el anti-héroe.

## ANTZERKIA
### Abuztuak 28, ostirala
### Berriogoiti
### 18:30

**"La última y nos vamos"**
**TRAPU ZAHARRA**
**7 urtetik gora**
**60 minutu**

Gauzak gaizki dihoazkio kaleko komiko bati (Santi Ugalde) eta antzoki barnean hastea erabaki du. Saiakera horretan, antzerki klasikoko antzezle batekin (Vega Iguarán) elkartuko da, eta "Cinco horas sin Mario" emanatea proposatuko dio. Dirua biltzeko, crowfunding bat antolatuko du, proiektu berriaren hiru eszena kalean irudikatuz.

Hogeita hamar urtetik gorako ibilbidean, Trapu Zaharra taldeak hogeita hamarren bat ikuskizun ekoiztu ditu, beti umorearen bidetik eta antiheroia begiko duela.



## TEATRO
### Viernes 4 de septiembre
### Añezkar, 18:00

**"El carro de la alegría"**
**PRODUCCIONES KINSER**
**Todos los públicos**
**70 minutos**

La familia Tiroriro ha encontrado, por fin, su carromato. Don Ticketón, Tío Vivo, Tómbola y Doña Algodón de Azúcar, después de deambular por un sinfín de lugares, aterrizan entre el público dispuestos a poner en marcha su carro de la alegría para hacer reír, jugar y bailar a todo el mundo.
Un recorrido por la feria de antes, de ahora y de siempre. Esa que huele a palomitas, que suena a los autos de choque, que gira como una noria y que provoca la emoción de grandes y pequeños.

## ANTZERKIA
### Irailak 4, ostirala
### Añezkar, 18:00

**"El carro de la alegría"**
**PRODUCCIONES KINSER**
**Publiko guztiak**
**70 minutu**

Tiroriro familiak, azkenean, bere gurdia aurkitu du. Hamaika lekutan alderrai ibili eta gero, Don Ticketón, Tío Vivo, Tómbola eta Doña Algodón de Azúcar ikusleen aurrean agertuko dira beren alaitasunezko gurdia martxan jarri nahian, mundu guztia irri eginarazteko, jolasarazteko eta dantzarazteko.
Ibilbide ederra da lehenagoko, oraingo eta betiko ferian zehar. Hau da, krispeta urrina airean, autotxoeen soinua, noriaren jira-bira, zirrara eraginda helduengan eta haurrengan.



## MAGIA
### Viernes 11 de septiembre
### Loza, 18:30

**"Magia para reír"**
**MARCOS ORTEGA**
**Público familiar. 60 minutos**

En escena, el mago Marcos presenta su último invento: A.M.P.A.R.O.: Asistente Mágico Personal de Audio y Respuestas Óptimas. Un altavoz inteligente que debería ayudarle durante el espectáculo. El problema es que A.M.P.A.R.O. tiene personalidad propia. A veces responde tarde. Otras veces entiende mal las órdenes o está demasiado ocupado. Entre discusiones con la inteligencia artificial, juegos con el público y magia sorprendente, el espectáculo se convierte en una sucesión de situaciones cómicas donde la tecnología no siempre funciona como debería.

## MAGIA
### Irailak 11, ostirala
### Lotza, 18:30

**"Magia para reír"**
**Producciones Kinser**
**Publiko familiarra**
**60 minutu**

Eszenan, Marcos Magoak bere azken asmakizuna aurkeztu du: A.M.P.A.R.O. (Audiorako eta Erantzun Optimoetarako Laguntzaile Magiko Pertsonala). Hau da, ikuskizunean lagundu beharko liokeen bozgorailu adimentsu bat. Arazoa da, bozgorailu horrek bere nortasuna duela. Batzuetan, berandu erantzuten du. Bestetan, gaizki ulertzen ditu aginduak edo lanpeturik dabil. Adimen artifizialarekiko eztabaidak eta ikusleekiko jokoak direla eta, eta magia harrigarriaren bidez, egoera komiko etengabeak gozatuko ditugu ikuskizunean, non teknologiak ez baitu beti funtzionatzen beharko lukeen bezala.

### FIESTA DE HERMANDAD / SENIDETASUNEZKO JAIA

## El Día de la Cendea se celebrará el 3 de octubre en Berriosuso

El 3 de octubre los diez concejos del municipio de Berrioplano se darán cita en Berriosuso para celebrar el Día de la Cendea. Aunque los detalles de la programación se darán a conocer a lo largo del verano por los canales de comunicación habituales (redes, web municipal y folleto), no faltarán la comida popular, los espectáculos musicales y otras de las actividades fijas de esta jornada.
La venta de **tickets para la comida** del Día de la Cendea será **del 21 al 25 de septiembre**.



## Zendearen Eguna urriaren 3an ospatuko da Berriogoitin

Urriaren 3an, Berriobeitiko udalerriko hamar herriak Berriogoitin elkartuko dira Zendearen Eguna ospatzeko. Egitarauari buruzko xehetasunak udan partean emanen dira jakitera ohiko komunikazio bideen bitartez (sareak, udal weba, eskuorria), baina aurreratu daiteke herri bazkaria eta musika ikuskizunak izanen direla, bai eta halako egunean ohikoak izaten diren beste jarduera batzuk ere.
Zendearen Egunerako **txartelak irailaren 21etik 25era** egonen dira salgai.

# KULTURA
# CULTURA

## MEMORIA HISTORIKOAREN ASTEA / SEMANA DE LA MEMORIA HISTÓRICA

### Oroitzea, hura ez errepikatzeko

Aurreko urteetan bezala, Udalak Memoria Historikoari lotutako hiru ekitaldi antolatu zituen maiatzean. **Maiatzaren 21**ean, Artikaberriko Artigune IIIn, **Oier Santamaría Remón** NUPeko ikerlariak mintzagai izan zuen zer-nolako jazarpena pairatu zuen LGTBI kolektiboak Nafarroan diktadura frankistaren garaian, **"LGTBI nafarraren zapalkuntza frankismo garaian"** izenburuko hitzaldian.

**Maiatzaren 23**an, larunbatarekin, **"Mujeres que cantan tras el balcón"** antzezlana taularatu zuen Adriana Salvok, Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean. Ikuskizunean gorazarre egin nahi izan zaie Nafarroako Erdialdeko emakume artistei. Izan ere, beren talentua publikoaren zerbitzuan jarri baitzuten II. Errepublikan, baina gerra ondoren eremu pribatura baztertu behar izan zuten.

Maiatz osoan, gainera, Nafarroako Memoriaren Institutuak apailatutako **"Lur Azpian. Desobiratze goiztiarrak Nafarroan"** erakusketa egon zen ikusgai **Maria de Maeztu Kultur Etxea**n. Erakusketaren bidez gogora ekartzen da 80ko hamarkadan burututako prozesua (Erriberan batez ere), altxatuek erraildako gizon-emakumeen gorpuzkinak lurpetik ateratzeko. Horri esker, ehunka lagunen gorpuak berreskuratu ziren, harat-honat barreiaturiko hobi komunetan lurperatuak baitzeuden.




### Recordar para que no se repita

Al igual que en años precedentes, el Ayuntamiento organizó en mayo tres eventos relacionados con la Memoria Histórica. El **21 de mayo** la sala Artigune III (Nuevo Artica) acogió la charla del investigador de la UPNA **Oier Santamaría "La represión de la Navarra LGTBI durante el franquismo"**, un análisis sobre la persecución sistemática del colectivo LGTBI en Navarra durante los años de la dictadura.

El **23 de mayo Adriana Salvo** se subió al escenario de la Casa de Cultura María de Maeztu para representar **"Mujeres que cantan tras el balcón"**, una oda a las mujeres artistas de la Zona Media de Navarra que durante la II República compartieron sus talentos con el público, pero que tras la guerra los relegaron al ámbito privado.

Además, durante todo el mes de mayo la **Casa de Cultura María de Maeztu** acogió la **exposición** del Instituto Navarro de la Memoria **"Bajo Tierra. Exhumaciones tempranas en Navarra"**, una muestra que rememora el proceso de exhumaciones tempranas de los años 80, sobre todo en la Ribera, y que permitió la recuperación de los restos de cientos de personas que habían permanecido diseminados por fosas comunes.

## COMPARSA DE ARTICA / ARTIKAKO KONPARTSA



### El Cabezudo Tudelano se suma a la Comparsa

La Comparsa de Artica cuenta con un nuevo miembro: el Cabezudo Tudelano. La Orden del Volatín de Tudela entregó el pasado 4 de abril esta figura a la Comparsa de Artica en agradecimiento a la participación de esta entidad en la Gigantada que la Orden organiza durante las Fiestas de Santa Ana.

El acto tuvo lugar en el salón de plenos de la Casa Consistorial de Tudela con la presencia, entre otros, del alcalde de la ciudad, Alejandro Toquero; del presidente de la Orden del Volatín, Celes Sebastián; y del responsable de la Comparsa de Artica, David Palacios.

### Tudelano buruhandia Konpartsako kide berria

Artikako Konpartsak kide berria du: Tuterako Buruhandia. Tuterako Orden del Volatín erakundeak irudi hori eman zion Artikako Konpartsari joan den apirilaren 4an, Artikako taldeak Santa Ana jaietako erraldoi bilkuran parte hartzearen esker onean, ekimena Tuterako erakunde horrek antolatu baitzuen. Ekitaldia Tuterako udaletxeko batzar aretoan egin zen eta, hantxe izan ziren, besteak beste, Alejandro Toquero hiriko alkatea; Celes Sebastián Orden del Volatín erakundeko burua, eta David Palacios Artikako Konpartsaren arduraduna.

## KONTZILIAZIOA / CONCILIACIÓN

### Hiri Kanpaldiak

Uda honetan ere haurrendako hiri kanpaldiak eginen dira; zehazki, ekainaren 24tik abuztuaren 28ra lau txandatan (ekainaren 24tik uztailaren 3ra, uztailaren 15etik 31ra, abuztuaren 3tik 14ra eta abuztuaren 17tik 28ra). 269 haurrek eman dute izena; 131k gaztelaniaz, 78k euskaraz eta 60k ingelesez. Gaztelaniazko eta euskarazko taldeak txandaka arituko dira egoitzetan, hau da, gaztelaniazkoak, lehenik, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean, eta ondoren, Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean, eta euskarazkoak, alderantziz. Ingelesezko txanda guztiak, berriz, Artikaberriko Artigune IIIn eginen dira.

Artikako Kontzejuak ere kanpaldiak antolatu ditu Artikaberriko María Domínguez Gizarte Etxean. kainaren 22tik abuztuaren 28ra izanen dira, uztailaren 6tik 14ra bitarteko astean izan ezik.

### Campamentos urbanos

Los campamentos urbanos infantiles se desarrollarán del 24 de junio al 28 de agosto en cuatro tandas (del 24 de junio al 3 de julio, del 15 al 31 de julio, del 3 al 14 de agosto y del 17 al 28 de agosto). En total se han apuntado 269 niños y niñas, 131 en castellano, 78 en euskera y 60 en inglés. Tanto los grupos de castellano y euskera rotan de sede (los de castellano, primero en Artica (Casa de Cultura María de Maeztu) y después en Berrioplano (Edificio Multiusos) y los de euskera, al revés), mientras que los de inglés son fijos en Nuevo Artica (Sala Artigune III).

El Concejo de Artica también ha organizado campamentos en el Centro Cívico María Domínguez (Nuevo Artica). Serán del 22 de junio al 28 de agosto, excepto en la semana del 6 al 14 de julio.

# EUSKARA
# EUSKERA

### EUSKARAREN EGUN / DÍA DEL EUSKERA

## Euskararen jaia Artikaberrin ospatu da, aurten

Ekainaren 6an, Euskararen Jaiak alaitasunez eta musikaz bete zuen Artikaberri. Goizean, erraldoiak, dantzak eta herri kirolak izan ziren, giro ederrean, herri bazkarian 255 lagun elkartu zirela. Arra-tsaldean, tailerrak eta haur jolasak izan ziren. Eta gero, dantzaldia, The Trikiteens taldearen eskutik. Nafarroako dantzaldi talde ezagunenetakoa da. Horrez gain, aurten lehen aldiz, gazteendako kontzertu bat egin zen, egungo nafar musikagintzako talderik punta-puntakoenetako baten eskutik: Burutik. Kalitate handiko emanaldia izan zen.
Aurreko edizioetan bezala, aitzineko astean hainbat jarduera antolatu ziren  euskarari loturik, hala nola ohiko orientazio proba eta Orreaga Musika Eskolako ahots ensemblearen eta comboareno kontzertua Artikaberriko plazan.

## La fiesta del euskera recaló este año en Nuevo Artica

El 6 de junio la Fiesta del Euskera llenó de alegría y música Nuevo Artica. Por la mañana, el ambiente llegó de la mano de los gigantes, las danzas, el deporte rural y la comida popular, que reunió a 255 personas. Por la tarde, hubo diversos talleres y juegos infantiles, que culminaron con un taller de talos y baile coreografiado. La tarde siguió con bailables a cargo de The Trikiteens, uno de los grupos de verbena más populares en Navarra. Además, este año y por primera vez, se organizó un concierto dirigido a la juventud que tuvo como protagonista a uno de los grupos más punteros en la escena musical navarra actual, Burutik, con un espectáculo de gran calidad.
Como en ediciones anteriores, la semana previa se organizaron diversas actividades ligadas al euskera como la tradicional prueba de orientación y un concierto del ensemble de voces con combo de la Escuela de música Orreaga en la plaza de Nuevo Artica.








### AYUDAS MUNICIPALES / UDAL LAGUNTZAK

## Laguntzak euskara ikasteko eta udalekuetarako

2025eko urritik 2026ko ekainera euskara ikasteko eskoletara joan diren Berriobeitiko udalerriko bizilagunek dirulaguntza eskatzen ahalko dute **uztailaren 4ra bitarte** udal webguneko egoitza elektronikoaren bidez edo udal bulegoetan. Deialdiari buruzko eta behar den dokumentazioaren inguruko argibide guztiak eskura daude **www.berrioplano.es** webeko **"Albisteak"** atalean.
Ekainean, bestalde, plazaratuko da gure udalerritik kanpo egiten diren udalekuetarako beka eskuratzeko laguntza-deialdia. Aurreikuspenen arabera, eskabideak aurkezteko epea **irailaren 1etik 30era** bitartekoa izanen da. Laguntzei buruzko argibide guztiak ohiko informazio kanalen bidez argitaratuko dira (**948 30 31 29**, **euskara@berrioplano.es** eta **sare sozialetan**).

## Ayudas el estudio de euskera y a los campamentos de verano

Los vecinos y vecinas del municipio de Berrioplano que hayan asistido a clases para aprender euskera entre octubre de 2025 y junio de 2026 podrán solicitar una subvención **hasta el próximo 4 de julio** a través de la sede electrónica de la página web del Ayuntamiento o en las oficinas municipales. Toda la información sobre la convocatoria y documentación necesaria están disponible en el **apartado "Noticias"** de la web **www.berrioplano.es**.
Por otro lado, en junio sale la convocatoria de ayudas para acceder a una beca de verano para los campamentos de verano en euskera que se desarrollan fuera del municipio de Berrioplano. El plazo de presentación de solicitudes será previsiblemente **del 1 al 30 de septiembre**. Toda la información sobre estas ayudas se hará pública a través de los canales informativos habituales (**948 30 31 29**, **euskara@berrioplano.es** y en **redes sociales**).

VOLUNTARIADO AMBIENTAL / INGURUMENEKO BOLUNTARIOTZA



# ¡Anímate y apadrina un árbol este verano!

# Zatoz eta babestu zuhaitz bat uda honetan!

El Ayuntamiento vuelve a poner en marcha la campaña para apadrinar un árbol en el entorno urbano. Las personas interesadas tan sólo tienen que elegir el árbol que quieren apadrinar, ponerle una cinta identificativa con el nombre que quieran darle, y comprometerse a cuidar "su árbol" con dos litros de agua a la semana. Las cintas identificativas podrán recogerse en espacios municipales (Ayuntamiento y Artigune de Artica), y en entidades y establecimientos colaboradores (Sociedad Txolinenea, Bar Kizkurra y Farmacia Beatriz Prados Lana).
Todos los detalles sobre la campaña se darán a conocer a través de los canales de comunicación habituales (página web municipal y redes sociales).

Udalak berriz ere jarri du abian zuhaitzak hiri ingurunean babesteko kanpaina, herritarrei zuzendua. Oso erraza da. Interesdunek zer zuhaitz babestu nahi duten aukeratu behar dute, izen bat eman eta izen hori zinta batean idatzi; horrekin batera, "beren zuhaitza" zaintzeko konpromisoa hartu, astean bi litro ur botatzeko. Izena idazteko zintak udaletxean eta Artikako Artigunen egonen dira eskura, bai eta erakunde eta establezimendu laguntzaileetan ere (Txolinenea elkartea, Kizkurra taberna eta Beatriz Prados Lana botika denda).
Kanpainari buruzko xehetasun guztiak ohiko komunikazio bideen bitartez emanen dira jakitera (udalaren webgunea eta sare sozialak).

TOPONIMIA





## Loperiz, eta Aitzoain eta Berriogoitiko Fazeria

**ITURRIA:**
"Nombres de lugares de la antigua Cendea de Ansoáin"
JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO

**Dokumentazio garaikidea: Loperiz (1945)**
Mendi magala, Berriogoitirekiko Fazeriaren (IE) eta Ultzamako errepidearen artean.
**Aitzoain eta Berriogoitiko Fazeria:** 25 hektareakoa, dermioaren iparraldean, San Kristobal mendiaren magalean (Ezkaba mendi), 19. poligonoaren (Berriogoiti-Untzu-Zildotz-Orrio fazeroa), Berriogoitiren, Aitzoainen eta Alfontso XII.a gotorlekuaren artean.

## Loperiz y Facería de Aizoáin y Berriosuo

**FUENTE:**
"Nombres de lugares de la antigua Cendea de Ansoáin"
JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO

**Documentación contemporánea: Lopériz (1945)**
Falda del monte, entre la Facería con Berriosuso (NE) y la carretera de la Ulzama.
**Facería de Aizoáin y Berriosuo:** de 25 Has, al norte del término, en la falda del monte San Cristóbal, entre el polígono 19 (facero Berriosuso-Unzu-Cildoz-Orrio), Berriosuso, Aizoáin y el Fuerte de Alfonso XII.

# FLORA DE LA CENDEA
# ZENDEAKO LANDAREAK

## Ollagantxe *Amelanchier ovalis*

**Otros nombres:** guillomo (es), arangurbea (eus)

Arbusto muy ramificado, caduco, generalmente de 1 a 3 m de altura. Las ramas son rojizas, pilosas al principio. Las hojas de 2 a 5 cm, redondas u ovaladas, de borde aserrado fino. Verdes por arriba y pelosas blancas por abajo que se perderá más tarde. Las flores, de 5 pétalos alargados, cada uno de entre 10-13 mm y de un blanco muy brillante. Forman grupos de 3-8 flores, al final de las ramas. Florecen de abril a junio. Los frutos, al madurar a finales del verano, son de color negro azulado. Conservan una "corona" de 5 puntas que es el cáliz persistente de la flor.



**Distribución:** región mediterránea, centro de Europa, y Cáucaso. En Navarra se le encuentra en la zona central, evitando la región cantábrica y el tercio sur.
**Hábitat:** claros de los bosques, frecuenta las zonas rocosas, pie de cantiles y ambientes de matorral. Prefiere suelos calizos. Desde 400 hasta los 1800 m.

**Comportamiento:** es muy habitual que forme parte de las orlas y los setos de la degradación del bosque.
**Usos:** tradicionalmente se ha comido su fruto, dulce y sabroso, aunque siempre en pequeñas cantidades. En la medicina popular tiene muchas aplicaciones, aunque no aparece en ninguno de los grandes tratados clásicos. Su madera, fuerte, flexible, resistente a la torsión, se ha empleado para la fabricación de herramientas y de mangos de elementos percutores; sin embargo, su uso preferente fue para las clavijas de la lanza de los carros y de la maquinaria agrícola. También se emplea, con otros congéneres exóticos, en jardinería.
**Dónde encontrarla:** le gustan los espacios abiertos con matorral, mejor en sitios rocosos y bajo los cantiles, frecuente sobre calizas
**Curiosidades:** el género Amelanchier ocupa las áreas templadas del hemisferio norte. Lo forman unas 25 especies. Sólo una vive de forma natural con nosotros.

**Texto y fotografía:** Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti)

## Ollagantxe *Amelanchier ovalis*

**Beste izen batzuk:** arangurbea (eus) guillomo (es

AArras zuhaixka adarkatua da, erorkorra, 1-3 metroko altuerakoa, oro har. Adarrak gorrikarak dira, iletsuak hasieran. Hostoak, 2-5 cm-koak, borobilak edo obalatuak, ertz zerradun mehea dutela. Berdeak gainetik, eta iletsu zuriak azpitik, geroago galduko dena. Loreek 5 petalo luzanga dituzte, bakoitza 10-13 mm-koa, zuri dirdiratsuak oso. 3-8 loreko multzoak osatzen dituzte, adarren bukaeran. Apiriletik ekainera bitarte loratzen dira. Fruituak, uda akaberan ontzean, beltz urdinkarak dira. 5 puntako "koroa" bat kontserbatzen dute, lorearen kaliza iraunkorra dena, alegia.

**Banaketa:** eskualde mediterraneoa, Europako erdialdea eta Kaukaso. Nafarroan, erdigunean dago, ez baita hazten Kantauri aldean eta hegoaldeko herenean.
**Habitata:** oihanetako soilguneak, eta ohikoa da ingururik arrokatsuenetan, labar oinetan eta sasitza inguruneetan. Kareharrizko lurzoruak maite ditu. 400etik 800 metrora bitarte.
**Portaera:** oso ohikoa da oihanaren degradaziotik sortzen diren orla eta landare-hesietan.
**Erabilerak:** betidanik jan da haren fruitua, gozoa eta zaporetsua, baina beti kantitate txikietan. Erabilera aunitz ditu herri medikuntzan, baina ez da itun klasiko bakar batean ere agertzen. Zur gogor eta malgua du, tolesdurarekiko erresistentea; erremintak egiteko eta elementu kolpekarien kirtenetarako erabili da; dena dela, batez ere, nekazaritza gurdi eta makinetako endaitzeko zirietarako erabili zen.
Halaber, beste landare exotiko batzuekin batera erabiltzen da lorezaintzan.
**Non dago:** espazio ireki sasidunak ditu gustuko; hobeki, leku arrokatsuetan eta labarren azpietan; ohikoa, kareharrien gainean.
**Bitxikeriak:** Amelanchier generoa ipar hemisferioko eremu epeletan hazten da. 25 bat espeziek osatzen dute. Haietariko bakarra bizi da berez gure artean.

**Testua eta argazkia:** Gorosti Natur Zientzi Elkartea

# GURE TOKI PUBLIKOAK
# NUESTROS ESPACIOS PÚBLICOS

## Berriobeitiko igerilekuak

2008an ireki ziren, adin tarte guztiei azken belaunaldiko ongizate eta kirol zerbitzuak eskaintzeko. Jendeak asko erabiltzen ditu muskulazio gela, ongizaterako guneak eta igerilekuak, klimatizatuak zein kanpoaldekoak.

- BARNE IGERILEKUAK: jolaserako eta igeri egiteko igerilekuak; hidromasajerako spa igerilekua; jacuzzia.
- KANPO IGERILEKUAK: jolaserakoa, plisti-plastakoa; lorategiak; haur parkea, askaldegiak eta barbakoak.

## Artikako Kirol Hiria

2011n zabaldu zen, kirol eskaintza handia du, bai eta Beauty Spa zerbitzua eta fisioterapia zein nutrizio zerbitzuak ere.

- BARNE IGERILEKUAK: igerileku klimatizatuen barrutia; igerileku klimatizatu estalia; igerileku termoludikoa; spa eremua (igerileku bat).
- KANPO IGERILEKUAK: kirol igerilekua; arroka eta txirrista eremuak; igeri egiteko kanpo igerilekua; relax igerilekua (jacuzziak); plisti-plastako igerileku jolasgarriak eta splash park; erretegiak eta mahai eremua; lorategi eremua; udako taberna.





## Piscinas de Berrioplano

Se inauguraron en 2008 para ofertar servicios de wellness y de deporte de última generación adaptados a todos los sectores de la población. Además de la sala de musculación y los espacios dedicados al bienestar, las piscinas, tanto climatizadas como exteriores, son las xxxxxxx más utilizadas.:

- PISCINAS NTERIORES: Vaso de recreo y nado; Spa vaso de hidromasaje; Vaso de jacuzzi.
- PISCINAS EXTERIORES: Vaso de recreo exterior; Vaso de chapoteo exterior; Zona ajardinada; Parque infantil; Merenderos y barbacoas.

## Ciudad Deportiva de Artica

En funcionamiento desde 2011, ofrece una amplia oferta deportiva, que se completa con un servicio Beauty Spa y servicios de fisioterapia y nutrición.

- PISCINAS NTERIORES: Recinto de piscinas climatizadas; Piscina climatizada cubierta; Piscina termolúdica; Zona spa (con una piscina).
- PISCINAS EXTERIORES: Piscina recreativa; Zonas de roca y toboganes; Piscina para nado exterior; Piscina de relax (con jacuzzis); Piscinas de chapoteo lúdicas y splash park; Asadores y zona con mesas; Zona ajardinada; Bar de verano.







# KIROL EGUNA / DÍA DEL DEPORTE








